

hh
hik hasi

Lanbide Heziketa eraldatzen
Anna Luna arreta goiztiarraz
Familia espazioak haur-eskolan
Ipurtargiak eta istorioak
Transexualitatea
Musika-tresnak
Xabier Mendiguren Elizegi



BASOA HEZITOKI

ikastola **garbia** eta bazkaria gozoa



Taldeetarako
sukaldaritza
eta garbiketa

A stylized white lowercase letter 'a' inside a white circle, set against a dark red background.

ausolan



AURKIBIDEA

GAIA / 10

LANBIDE HEZIKETA ERALDATZEN

Teknologien bultzadaz, abiada handian aldatu da lan-mundua, eta aldaketa orok sortzen duen ziurgabetasun eta konplexutasun tentsazioa indartu egin du krisi ekonomikoak. Testuinguru horretan lan egiteko prestatu behar ditu Lanbide Heziketak ikasleak. Korapilo horretan, eraberritzea, errotik aldatzea beste biderik ez du aurkitu.

ELKARRIZKETA / 16

ANNA LUNA

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan arreta goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituen dekretua atera berrikan, Anna Luna elkarrizketatu du Hik Hasik. Arreta goiztiarrean aditua den honek urteak daramatza arlo horretan lanean, Kataluniako CDIAT zentroetako batean.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-09-22).

Kopurua: 4.000 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Gugan bego Imanol Urbieta

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Lanbide Heziketa eraldatzen

16 ELKARRIZKETA

ANNA LUNA

“Askotan familian dago haurrek izan ditzaketen arazo askoren jatorria zein konponbiderako gakoa”

22 ESPERIENTZIAK

Plisti Plasta, naturako hezigunea

28 EKARPENAK 1

Kattuka haur-eskola. Familia-espazioak

34 EKARPENAK 2

Ipurtargiak eta istorioak

36 GALDEIDAZU

AINGERU MAYOR
Transexualitatea

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

‘Musikas-tresnak’
ikasmateria

42 ATZEKO ATETIK

Xabier Mendiguren Elizegi



EMOZIOAK LANTZEKO IPUNAK IRAKURLE HASIBERRIENTZAT

Begoña Ibarrola
Itzulpenak: Miren Agur Meabe

ELKARTASUNA, JELOSIA, ESTUTASUNA, EMPATIA, AUSARDIA,
ERRUDUNTASUNA, TRISTURA, ESKER ONA, GAITZESPENA, ILUSIOA,
NOR BERE BURUAREKIKO KONFIANTZA, LOTSA, HASERREA, ADEITASUNA,
BELDURRA, MAITASUNA, EZUSTEKOAK, HARROKERIA...




elkar

www.elkarargitaletxea.eus

Gugan bego Imanol Urbietta

editoriala

ETA HORTXE, IMANOL URBIETA,
'BAKARRIK ETA LIBRE BADOA,
BAKARRIK ETA LIBRE GAZTEA,
POLTSIKOAN ESKUAK, OINAK
ARRASTAKA, LUZEA DA BIDEA...'
BETI ARTE MANOLO!



Gugan bego Imanol Urbietta. Gugan baitaude *Mac Mikel* eta *Ranroberra* eta *Txiki, txiki, txikia* eta *Astoa ikusi nuen* eta *Behin betiko* eta *Jon Braun* eta *Txoria nintzela* eta *Kalera kalera...* Eta zutik jarri zara, eta besoak gora, *uztaia gora-gora lurretik zerura*. Eta irribarre bat gelditu zaizu ezpainetan, gozamina gorputzean. *Jira alde batera eta gero bestera ta behera, behera, behera, ta behera, behera bai, uztai barruan preso gelditu naiz orain*. Imanol Urbietta esan, eta askatasun ahaire batek ukitu zaitu, hunkitu. Haurtzaroa territorio libre balitz bezala gogoratu duzu bat-batean, *asko maite zaitut nik*.

Artista bat izan da Imanol Urbietta, musikari, sortzaile eta irakaslea. Maisua. *Alaken, ala pikula tunbaire...* xume bezain elegante, ximple bezain aberats, tinko, gozagarri bezain inteligente, koherente eta konprometitu. Hurrekin, haurrengan pentsatuz, haurrentzat egin du lan, maitasun handiz, sormen ikaragarritz. *Errespendula pikula tunda...*

Engaiamenduak eraman zuen irakaskuntzara Imanol Urbietta (Zarautz, 1934). 60ko hamarkadan aurrezki kutxako lana utzi eta Salvatore Mitxelena ikastolan hasi zen eskolak ematen, Frantziskotarrek utzitako lokaletan eta garajeetan. Frankismo betean, euskaraz eta pedagogia aurrerazaleekin. Jolasa zuen bitarteko nagusi, bai baitzekien zeinen kontu serioa zen jolasa haurrentzat. Musika jolasa zen irakaslearentzat. Aitzindaria izan zen. Aurrean

zituena umeen beharrei erantzuteko sortu zuen ikasmateria, *Xirula Mirula, Xixupika eta Lau katu eta danbor bat*, eta Euskal Herri osoko milaka haurren soinu banda bilakatu da azken lau hamarkadatan. Kontxi Aizarna irakasle eta emaztea lagun, azkenak eman arte, sortu du, *goxo-goxoro, isil-isilik, ningi ningi nin ningi ningi nin, gauean kantari, ningi ningi nin ningi ningi nin, izarrari*. Eta orain, betikotu da. Onak ez du iraungitzen, eta gaurko haurrek betiko kantuekin jarraitzen dute gozatzen, ikasten, dantzatzen, hunkitzen, jolasten, abesten, bizitzten finean. Emozioak ez dira modaz pasatzen.

Izan dira omenaldiak —2002an Andoni Egañak *Luzea da bidea* biografia idatzi zion, Gipuzkoako Aldundiak Abbadia saria eman zion 2007an, Durangoko Azokak Argizaiola 2010ean, 2013an musikariek *Bakarrik eta libre* diskoa egin zioten bertsioekin, 2014an Zarauzko ikastolaren omenaldia jaso zuen...—, eta etorriko dira gehiago, merezitakoak guztiak. Omenaldirik onena, irakasle bakoitzak bere gelan, bere ikastetxean egin diezaiekona, *txiki, txiki, txikia, ikusten naiz kalean. Handitzen handitzen, hasi naiz handitzen, txikia izanik...* abestu, gozatu, jolastu, eta haur bakoitzak duen onena ateratzen laguntzea. Zer da bada, irakasle izatea?

Eta hortxe, Imanol Urbietta, *bakarrik eta libre badoa, bakarrik eta libre gaztea, poltsikoan eskuak, oinak arrastaka, luzea da bidea...* beti arte Manolo!

“Memoria historikorik gabeko herri bat, bere baloreak eta identitatea ezagutzen ez dituen, kolonizatua izateko prest dagoen soroa da.”

Jose Mari Jimeno Jurio



IAZ BAINO 114 IKASLE GEHIAGOREKIN HASI DU IKASTURTEA SEASKAK

3.500 ikasle inguru izango dira aurtengo ikasturtean Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako ikastoletan, iaz baino 114 gehiago. Paxkal Indo Seaskako presidenteak azaldu bezala, ikastolak indartzea da euren xedea, “kostaldean ez ezik, baita barnealdean ere: lurralde guztian”. Horrez gain, ikastola txikien aldeko apustua egiten jarraitu nahi du Seaskak, “eskolak direlako herri baten arnasa”. Ikastolak hurbil izateak, gainera, euskaraz ikastea eskura jartzen die haurrei: “Euskara etxean, karrikan, eskolan eta lanean nahi dugulako, ezinbestekoa da ikastolak etxetik hurbil, herri-tarregandik hurbil izatea, eskura dagoen egiazko hautu bat izan dadin”.

EAE-KO HEZKUNTZA LEGEA LEGEALDI HONETAN EGITEKO ESKATU DUTE IKASTOLEK

“Legegintzaldi honetan EAERako Hezkuntza Legerik onartzen ez bada, porrot itzela izango da, guztiontzat”, hala mintzatu zen Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko lehendakaria, ikastolen ikasturte hasierako ekitaldian. Bere hitzetan, horretarako, ezinbestekoa da eragileen parte-hartzea eta adostasuna bilatzea: “Eztabaidatzeko prest gaude, baldintzarik gabe, betorik gabe, zabal eta sakon”.



ZAPIDUN IKASLEEI TRABARIK EZ JARTZEKO ESKATU DIE EUSKO JAURLARITZAK ESKOLEI

Zapiaren erabilera ez galarazteko jarraibidea bidali die Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoei. Ikasturteko lehen egunean jaso zuten txostena eskolek. Aurreko ikasturtean polemika sortu zen Gasteizen, bi ikasleri eragozpenak jarri zizkietelako buruko zapiarekin eskolara joateko. Hori eteteko eskatu die Eusko Jaurlaritzak ikastetxeei. Hala dio agiriak: “Ez galarazi buruan zapia daramaten nesken eskolaratzea”.

Zentroko arauak aipatu izan dituzte zapiari trabak jartzeko, burua estalita joatea ez dutelako onartzen arau horiek. Jaurlaritzak eskolei eskatu die kasu horretan aldatzeko barne arauak, eta ez jartzeko eragozpenik zapia daramatenei.

Jaurlaritzak nabarmendu du ikasleek oinarrizko gaitasunak lortu behar dituztela “gero eta globalizatuago eta interdependienteago den mundu honetan bizitzeko”. Egoera horretan ohar hauxe egin du: “Komeni da jakitea kultura bakoitzak zer erantzun ematen dien premia horiei, etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta beste kultura batzuen ekarpenak balioetsi edo onesteko, kulturartekotasunaren eta kultura inklusiboaren bidez, kulturen arteko errespetua eta elkarriketa sustatzeko asmoz”.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

D EREDUAREN HEDAPENAK AURRERA DARRAI NAFARROAN

Lurralde osoko sare publikora hedatu da euskarazko eredia Nafarroan. Haur Hezkuntzan hasi dira eta hiru herritan lortu dute gelak osatzea: Tafallan, Lodosan eta Caparrosan. Hezkuntzako sindikatu eta eragile batzuek kritika egin zioten Hezkuntza Departamentuari, ez zuelako kanpainarik egin D eredia sustatzeko: soilik gutunak bidali zizkien haurrak eskolan hasteko adinean zituzten gurasoei. Orain Gobernuak kanpaina egingo du.

Izan ere, euskarazko irakaskuntza bultzatzea izango da aurtengo ikasturtearen berritasunetako bat. Ikastolek soilik egin dute euskarazko eskaintza lurralde osoan orain arte, eta orain ere haiek jaso dute eskari handiena, nahiz eta eskola publikoek ere eskaini. D eredian hasteko 114 eskari jaso dituzte: 77 ikastolek eta 37 eskola publikoek.



ELHUYAR

atlas 2016

GEOGRAFIKOA ETA POLITIKOA
Euskal Herria eta mundua

Elhuyar atlas berria,
erantzun guztiak eta
atlasa.elhuyar.eus
gunerako sarrera-kodea

12-16 urte

Zenbat
euskal hiztun
ditu
Lapurdik?

Zen da
Frantziako
eskualdean
banaketa
berria?

Zen da
Hego Sudan
estatu berriaren
hiriburua?

Eskuratu
zure atlasa,
eta izan
leku bat
munduan

Zen da
emakumeen
proportzioa
Euskal Herriko
udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Zein da Euskal Herriko udalerrietan?

Mapa mutuak
eta geografiako jokoak erabilgarri

elhuyar
www.elhuyar.eus



0-3 ADIN TARTEKO FORMAZIOKO BIGARREN PROMOZIOA ERE ATERA DA

Hik Hasi egitasmoak 0-3 adin tarteko hezitzaileei zuzenduriko formazio-zikloa antolatzen du, bi urteko iraupeneko, eta dagoeneko bigarren promozioak ere bukatu du ibilbidea. Hori ospatzeko, irailaren 24an, bazkaria egin zuten Donostian Hik Hasi komunitateko kideek, formazio-zikloko irakasleek eta ikasleek. Bazkariaren aurretik, ekitaldi labur batean ikasketak akreditatzen dituzten diplomak banatu zizkieten ikasleei. Bestekak beste, Loris Malaguzzi italiarrak eta Emmi Pikler hungariarrak utzitako ikasgaiak jaso dituzte formazio-zikloko parte-hartzaileek.



HH ETA LH-KO IRAKASLEENTZAT GITARRA IKASTAROA XIRULA MIRULAREN ESKUTIK

Ezertxo ere ez dakiten irakasleentzat gitarra ikastaroa antolatu du Xirula Mirulak, zortzigarren urtez jarraian. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan aritzen diren irakasleei dago zuzendua. Helburua da ikastaro amaieran eskola-giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoiki gitarraz laguntzeko gai izatea. Horrexegatik, praktika izango du oinarri ikastaroak.

Urriaren 21ean hasita, eskolak ostiraletan izango dira 18:00etatik 19:30era, eta ikastaroa maiatzeko azken astean amaituko da. Donostiako Amara auzoan (Catalina Erauso, 12) izango dira saioak.

Xedea da talde txikia osatzea, zortzi lagun ingurukoa. Beraz, gitarra jotzen ikasteko interesa eta gogoia duenak lehenbailehen eman behar du izena. Ikastaro osoa —materiala barne— 240 euro kostatuko da. Matrikula epea zabalik dago jada. Izena emateko 943 463555 zenbakira deitu (17:00 eta 19:00 bitartean) edo xirula@euskalnet.net helbidera idatzi behar da.

'ESKOLA ALDIRIAK', HEZKUNTZA KOMUNITATEARI ZUZENDUTAKO PROIEKTU DEIALDIA

Tabakalera kultura garaikidearen nazioarteko zentroak antolatuta egingo den *Eskola aldiriak*, hezkuntza komunitateari zuzendutako proiekturako izena emateko epea irekita dago urriaren 21 arte. Hainbat galderari erantzun nahi diete proiektuaren bidez:

- Zein harreman gustatuko litzaziguke izatea gure gertuko publikoarekin?
- Nolakoak dira eskola barruko eta kanpoko espazio publikoak?
- Nola baldintzatzen eta aldatzen dituzte espazio hauek eguneroko harremanak?

Eskola aldiriak eskolako, auzoko eta hiriko espazioetan arte eta hezkuntzako proiektu kolaboratibobat garatzeko deialdia da, hezkuntza komunitatearekin batera praktika artistiko eta kultura garaikidearen bitartez. Tabakalerako Proiektu Kulturaleko Hezkuntza Sailak kalea, auzoa eta eskola bezalako eremuak lanerako testuinguru bihurtu nahi ditu, eraldaketa soziala sustatzeko duten aukera eskainiz.



HIZPIDE IZANGO DA

ARRETA GOIZTIARRA IZANGO DA HIZPIDE HIK HASI-K UDAZKENERO ANTOLATZEN DITUEN JARDUNALDIETAN



Urtero bezala, Hik Hasi-k jardunaldiak antolatu ditu udazkenerako, 0-6 urte arteko haurrekin aritzen diren profesionaleri zuzenduta. Arreta goiztiarra izango da azaroaren 4an Bilbon eta 5ean Donostian emango diren ikastaroetan landuko den gai nagusia. 0-6 tartean haurrei eman beharreko arretaz mintzatzeaz gain, EAEn arreta goiztiarraren eremua antolatzeko atera berri den dekretua aztertuko da eta Kataluniako eredia ezagutu ahalko da.

Jardunaldiak hasteko, Xabier Tapia psikologo klinikoak *Arreta Goiztiarra: argi-ilunak!* izeneko hitzaldia emango du. Ondoren, *Arreta goiztiarra eta sarea: eskolan egiten den lan komunitariotik begirada bat* izenburupean, Anna Luna Kataluniako psikomotrizista eta prebentzioan aditua mintzatuko da. Eta amaitzeko, Alvaro Beñaranez, pedagogo terapeutak eta Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakasleak, ondoko gaia jorratuko du: *Arreta goiztiarra eta eskola: benetako arreta izateko kontuan har ditzakegun gauza batzuk*. Bukaeran, hiru hizlariekin mahai-ingurua egingo da eta galderak egiteko eta eztabaidarako tarteak izango da.

Bilboko saioa EHUren Bizkaia aretoan izango da 9:00etatik 14:00etara; Donostiakoa, berriz, EHUren Barriola eraikinean 9:00etatik 18:00etara. Donostiako kasuan, arratsaldean, Kataluniako eskola bateko esperientzia ezagutzeko aukera izango da.

Izen-ematea irekita dago eta www.hikhasi.eus webgunean egin daiteke. Edozein zalantza izanez gero edo informazio gehiagorako, berriz, idatzi hikhasi@hikhasi.eus helbidera edota deitu 943 371408 telefono zenbakira.

REGGIO EMILIAKO LEHEN HEZKUNTZA EZAGUTZEKO JARDUNALDIA EGINGO DA BILBON URRIAREN 15EAN

Reggio Emiliako Lehen Hezkuntza ezagutzeko udaberrian Donostian egin zen jardunaldian jende asko lekurik gabe geratu zenez, datorren udazkenean Bilbon beste saio bat egitea erabaki du Hik Hasi, Donostiako saioaren balorazioa egin ostean, eskaintza osatuz.

Urriaren 15an izango da saioa EHUren Bizkaia aretoan (Abandoibarra etorbidea, 3), 9:00etatik 18:00etara. Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskolek 50 urteko ibilbidea egin eta gero, duela 7 urte, Lehen Hezkuntzako proiektua garatzen hasi ziren. Beraz, Haur Hezkuntzako proiektua Lehen Hezkuntzara nola eraman den ezagutu ahalko da jardunaldian. HHk zein LHK dituzten ezaugarrien berri emango dute hango profesionalak, eskubide bereziak dituzten haurrekin nola jokatzeko duten azalduko dute, eta eguneroko jarduneko bizipenak nolakoak diren kontatuko dute. Hizlari lanetan Maddalena Tedeschi Reggio Emiliako pedagogia arduraduna eta Rosa Buonanno Loris Malaguzzi eskolako hezitzailea ariko dira.

Saioa italieraz izango da, baina zuzeneko itzulpen zerbitzua egongo da. Informazio gehiagorako edota izena emateko www.hikhasi.eus webgunerako jo behar da. Edozein zalantza izanez gero berriz, hikhasi@hikhasi.eus helbidera idatzi daiteke edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.



Teknologien bultzadaz, abiada handian aldatu da lan-mundua azken urteotan. Aldaketa orok sortzen duen ziurgabetasun eta konplexutasun sentrazio hori indartu besterik ez du egin krisi ekonomikoak. Testuinguru horretan lan egiteko prestatu behar ditu Lanbide Heziketak ikasleak. Beraz, formazio tekniko konplexuaz gain, ziurgabetasun eta aldaketa bizkor horiek kudeatzeko gai diren ikasleak formatzea du orain erronka. Korapilo horretan, eraberritzea, errotik aldatzea beste biderik ez du aurkitu.

GAIA: ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Lanbide Heziketa eraldaketaren gurpilean

Teknologia berrien bultzadak nabarmen aldatu du gure bizimodua azken hamarkadotan. Teknologia horiek, gainera, etengabeko eboluzioan daude, eta abiada bizkorrean sortzen dira lanabes nahiz gailu berriak eta desagertzen ordu arte ezinbestekoak ziruditenak. Ziurgabetasuna da nagusi. Jendarteko beste alorretan bezala, eraldaketa horrek eragina izan du lan-munduan ere, gure inguruko enpresa-sarean. Eta, lan-mundu horretarako sarbide zuzen izatea bokazio duen Lanbide Heziketak, aldaketen gurpil bizkor horretara egokitzea du erronka, teknologien berrikuntzaren trenera jauzi egitea, eta ziurgabetasunean igeri egiten asmatzea. Eraldaketa-prozesu hori gidatzeko lanean ari da Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketarako sailburuorde Jorge Arevalo, eta prozesu hori bere zentroan txertatzeko borrokan, berriz, Alberto Arranz, Irunen egoitza duen Bidasoa Lanbide Heziketako eskolako zuzendaria.

Munduan gauzak asko eta azkar ari dira aldatzen, Arevaloren ustez, eta “aldaketa horrek eraldaketara behartzen gaitu. Lehengo gauza berak egiten jarraitzen badugu, lehengo modu berdinean, ez dugu etorkizunik oinarrian diferentia den testuinguru berri batean”. Inguru berri horretan, ziurgabetasuna da ezaugarri nagusia, bere esanetan. Izan ere, enpresek gero eta merkatu zabalagoan lehiatu behar dute, eta horrek etengabe produktuak berritzera edo eguneratzea behartzen ditu, eta, horrenbestez, teknologia berrietan



Alberto Arranz

“babesa bilatzera. Teknologia, horiek, ordea, ziurgabetasuna areagotu egiten dute hein batean, beraien garapena oso azkarra delako. Jada ezin dugu Lanbide Heziketako ziklo batean pertsona bat formatu makina jakin bat erabiltzeko, ez baitakigu epe laburrean makina hori erabilgarria izango den; ikaslea prestatu behar dugu prozesu oso bat kudeatzeko, zehinetan ez dakigun zein makina mota erabili beharko duen ere; trebatu behar dugu ekintzailetasuna bezalako balioetan”.

Bat dator ideia horrekin Arranz ere: “Ez dakigu zer datoren. Agian ari gara ikasleak formatzen ikasketak amaitzean existituko ez den lanpostu baterako. Beraz, indarra jarri behar dugu egokitze gaitasuna duten pertsonak sortzeko, ziurgabetasun hori kudeatzen jakingo dutenak, adaptatzen dakiten pertsonak”.

Beraz, Lanbide Heziketako ikasleen prestaketa, formazio horren filosofia errotik eraldatzeko beharra dute. Eta, eraldaketa horren oinarrian, pertsonak daude: “Gai baldin ba-

GAIA: ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Lanbide Heziketa eraldaketaren gurpilean

gara pertsona horien prestaketa eraldatzeko, gai izango gara bizi ditugun aldaketei erantzuna emateko”, dio Arevalok.

Gauzak horrela, azken urteetan sailburuordetzatik Lanbide Heziketako zikloetako formazio-maila hobetzea izan dute helburu. “Pertsonen prestaketa aldatu behar dugu kualifikazio hobea izan dezaten, humanitate mailan balio handiagoak izan ditzaten eta prest egon daitezen izatez deserosoa den ziurgabetasunean bizitzeko”, dio Arevalok. Ikasleen artean solidaritatea eta konpromisoa bezalako balioak indartzeko eta jarrera ekintzailea sustatzeko beharra ikusten du: “Egiteko eta esperimintatzeko gogoia duen jendea formatu nahi dugu; erratuko dena, normala baita, baina berriro altxa eta aurrera egingo duena”. Bere ustez, etengabeko aldaketan dagoen lan ingurune batean, ezinbestean enpresa baten baitan lanpostu bat baino gehiagotan aritzeko edo sektore bateko jardura batean baino gehiagotan gai den jendea prestatu behar da. Horrekin batera, ordea, enpresek espezializazioa ere eskatzen diote langileari, “batik bat industria arloan, zeinetan industria 4.0-aren iraultza bizitzen ari diren eta teknologia oso konplexu eta aldakorrekin egin behar duten lan”. Horregatik, Lanbide Heziketan titulazio berriak behar dituztelakoan dago, eta, horiek sortzeko bidean, oinarritzkoa izango da inguruko enpresen ekarpena: “Sarri enpresei neurriera egindako erantzunak ematen dizkiegu. Zerbait berria ekitoi behar badute eta ez badute horretarako prestaturiko profesionalik, adibidez, gugana jotzen dute eta zer behar duten azaltzen digute. Guk informazio horretatik konpetentziak zehazten ditugu eta formazio bat sortzen dugu”.

Zertan gauzatzen da eraldaketa?

Bidasoan duela 10-12 urte hasi ziren eraldatzeko lanean, Espainiako Hezkuntza Ministerioak berrikuntzarako sortutako deialdietan beraien proiektuak aurkeztuz. Orain, Eusko Jaurlaritzak sorturiko Tknika zentroarekin ari dira elkarlanean eraldaketa-prozesu hori beraien zentroan errotzeko. Hain zuzen ere, berrikuntza eta ikerkuntza aplikatua dira Tknikaren ardatzak, eta EAEko Lanbide Heziketa eguneratzeko eta “abangoardian kokatzeko” egiten dute lan.

Tknikaren eskutik berrikuntza gaietan formazioa jasotzen dute Lanbide Heziketako zentroetako irakasle eta zuzendariak. Besteak beste, lehiaren zaintza delakoan trebatzen dituzte, sarean dagoen informazioa behatu dezaten eta egunean egon daitezen beraien alorretan gertatzen ari diren aurrerapen teknologikoetan, produktu berrietan... “Hori lagungarria izan daiteke irakasle hori egunean egoteko eta

bere ikasgelan teknologiarik berrienak irakasteko, baina balio dezake, baita ere, proiektu berritzaile baterako ideiak hartzeko”, dio Arranzek.

Izan ere, Tknikak gidaturiko *Berrikuntzarako errutinak* programaren baitan, berrikuntzarako foro bat dute Bidasoako zentroan. Astean behin elkartzen dira irakasle guztiak, berrikuntzaren arloan aurrera nola egin dezaketen hausnartzeko. “Eskatzen diegu buruan dituzten ideiak planteatzeko, baita zentzugabeak diruditenak ere, eta bilera batzuetan horretantxe aritzen gara, ideiak jasotzen. Hurrengo bilera batean ideia horiei galbahea pasa eta aukeraketa egiten dugu. Horietako batzuk berrikuntzarako proiektu bilakatzen dira eta zentroan martxan jartzen ditugu, eta beste batzuk bidean gelditzen dira, zailak edo garestiak direlako”. Dena dela, halakoetan batzuetan enpresa jakin batekin edo Lanbide Heziketako beste zentro batekin jartzen dira harremanetan, bakarka egiteko zaila edo garestia zen proiektu hori elkarlanean egiteko. Gaur egun martxan dituzte berrikuntzarako proiektu asko elkarlanean oinarritzen dira, hain zuzen.

Zentroen arteko foroa ere sortzen du Tknikak. Bidasoako zuzendari Arranz, esaterako, astero izaten da Tknikaren egoitzan, eta beste zentro batzuetako zuzendariekin elkartzen da bertan. Foro horretan, batik bat zentroetan berrikuntzarako dinamikak txertatzeko prozesuan dituzten erroka nahiz zailtasunak partekatzen dituzte, baina baita aurkitu dituzten konponbideak ere. “Lehen erdi ezkutuan ibiltzen ginen, batek egiten zuena besteari kontatu nahi ezean. Orain beste gardentasun bat dago, informazioaren beste truke bat”. Eta, horrek, elkarlanari ere atea ireki dizkio.

Zentro desberdinek euren artean ez ezik, zentro bateko departamentu desberdinak ere elkarlanean aritzen dira proiektu jakinetan. Horrekin asko aldatu da irakasleen lana ere. “Orain ezin du mugatu bere eskolak ematera, eta kitto. Beste departamentu bateko ikasleak etorriko zaizkio bere ‘ordu librean’, esaterako, gai zehatz batean aholkularitza eskatzera, edo beste departamentu bateko proiektuan laguntzea egokituko zaio...” Eta, batik bat, eskola-orduetan darabilen metodologia goitik behera aldatu behar izan dute irakasleek, eraldaketa-prozesu honetan denak egokitu behar baitu garai berriek eskatzen dutenera. Izan ere, berrikuntza proiektuak sortu ez ezik, berrikuntza Lanbide Heziketako zentroetan bertan aplikatzea ere bada erroka. Batetik, zentro horien funtzionamenduan, antolaketan, kudeaketa-ereduetan; eta, bestetik, irakaskuntza-prozesuan erabilitako metodologietan. Arevaloren esanetan, “erroketan oinarrituriko metodologia aktiboaren aldeko apustua egin dugu,

GAIA: ETORKIZUNA ERAIKITZEN

eta hori aplikatzen da Lanbide Heziketako zentro gehienetan”. Hau da, ikasleek erronka zehatzei erantzunez ikasten dituzte edukiak, eta irakasleari prozesu horretan bidelagun izatea dagokio.

Edukiak irakastetik, proiektuetan bidelagun izatera

Ikasleak jasotzen duen edukia, ezagutza, eguneratu bada ere, ez da hainbeste aldatu, batik bat arlo teknikoetan. Baina bai eduki hori transmititzeko modua. Irakaslea azalpenak ematen arbelean, bere mahaiak babesturik ikasleegandik; ikasgela bateko irudi klasiko hori apurtzeko lanean ari dira Tknikaren laguntzarekin. “Hautsi egin behar da irudi hori: irakasleak txapa ematen eta ikaslea apunteak hartzen”, dio Arranzek. Horretan laguntzeko, ikasgela-eredu berriak ari dira irudikatzen, eta Tknikan jada sortu dituzte prototipo batzuk: gela gardenak, kristalezko hormekin, edozein lekutan ideiak idazteko eta besteei aurkezteko aukera ematen dutenak; malguak, zeinetan ikasleen mahaiak etengabe aldatzen diren lekuz, taldean lan egitea erraztuz; teknologia berrietara sarbidea dutenak, zorutik jaisten diren zutabeekin, zeinek sarera konexioa egiteko gailu elektronikoei sarbidea ematen dieten; eta zeinetan ez dagoen gordeirik irakaslearentzat leku jakin bat, hau uneoro interakzioan ariko baita

proiektuetan lanean ari diren ikasleekin. Tknikako prototipo horiek ere lekua hartzen ari dira Bidasoan; gela bat osorik eredu horren arabera sortu dute, eta beste hainbat egokitu, hormak bota eta beirateez ordezkaturaz, eta hausnartzeko txokoak sortu...

Proiektuetan elkarlanean irudikatzen dira ikasleak espazio horietan, eta hori izan da metodologia kontuetan Bidasoan emandako jauzirik handienetarikoa. “Lehenengo materia berdina ematen ditugu, baina aplikatuta, proiektu batean gorputzuta. Irakasleen egitekoa da zalantzak argituz laguntzea, gidatzea, eta ikasleek proiektuan zehar dituzten beharren arabera, eduki batean edo bestean sakontzen du”, Arrainzek dio. Eta, proiektu horiek zenbat eta erreago izan, hobe. Horregatik, sarri inguruko enpresen zerbitzura aritzen dira, horiek martxan dituzten proiektuetan parte hartuz: enpresak zentrorra jotzen dute behar duten aplikazio eta zerbitzu jakin baten bila, eta ikasleak horretan jartzen dira lanean. “Ikasleentzat ez da gauza bera irakasleak planteatutako fikziozko arazo batean lan egitea, edo enpresa batentzat aritzea. Beste modu batean inplikatzeko dira, hobeto ulertzen dute epeen urgertzia, kalitatearen edo balio erantsiaren beharra... eta lan munduko benetako dinamika eta beharrak ezagutzeko balio die. Gure helburua ez da teknologia edo garapen



Beirate batek lotzen ditu ikasgela nahiz diseinurako gunea eta 3D inprimagailuak dauden espazioa.

GAIA: ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Lanbide Heziketa eraldaketaren gurpilean



Egur-tailerrean, monopatin bat eraikitzeko material berriak ari dira ikertzen ikasleak.

zentroekin lehiatzea, baina bai horietako baten zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez duen eskualdeko enpresa txiki edo ertain bati laguntzea”.

Proiektu horien bidez, gainera, Lanbide Heziketarekin harreman estua duen eskualdeko enpresa-sarera berrikuntza eramatea ere lortzen dute, soluzio eta egiteko modu berriak planteatzen baitizkiete, eta enpresa horietan teknologia berriak txertatzen hasteko bide bat izaten da. Enpresa horietan berrikuntzaren hazia ereiteko, alegia.

Gehiago ikasi, gusturago ikasi

Metodologia berri honek, gainera, bai irakasleen bai ikasleen motibazioan eragina du. “Irakasleek esaten didate, ‘lehen *txapa* botatzen nuen eta askotan ez nekien ulertu al zuten, gustatu al zitzairen ikasitakoa... orain beraiekin elkarlanean ari naiz eta ikusten dut nik azaldutakoa aplikatzeko gai direla eta interesez ari direla lanean’. Hori oso aberasgarria da irakasleentzat, eta berrikuntzarekin jarraitzeko eta aldaketa hauetan sinesteko sentsibilizatzen ditu”.

Ikasleek ere, hobeto erantzuten dute dinamika berri hauen aurrean. “Motibatuago ikusten ditugu. Lehen zerbaiteko eskatu eta kexa izaten zuten. Orain beraien proiektua sortu

behar dute, eta goizean iritsi eta 3D inprimagailura doaz korrika, sortu duten tresna zehatz bat nola gelditu den ikusteko. Gero, proiektua taldean aurkeztean, beraiek autoebaluatzen dira: ikusten dute albokoak hau edo hori erantsi diola gailuari, eta agian beraiena ez dela nahikoa izan, eta motibatu egiten dira gehiago egiteko. Azkenean, eraldaketa hauekin gehiago ikasten dute, eta, gainera, gusturago daude”.

Beraz, Arranzek argi du etorkizunean bide beretik eman behar dituztela urratsak: “Hori da etorkizuneko erronka: adi egon zer ari den mugitzen gure alorretan, eta pertsona malguak formatu. Eta zentroak horren ispilu izan behar dira: guk ere aldaketarako prest egon behar dugu, eta malguak izan abentura berrietan sartzeko”.

Eta, egidanko eraldaketa lan honen guztiaren ondorio, nola irudikatzen du Arevalok Lanbide Heziketaren etorkizuna epe ertainean? “Asko pentsatu dut hortaz, eta baikorra naiz. Egin dugun ibilbidea ikusirik, Europako Batasunetik gure lanari egindako aitortza ikusirik, irudikatzen dut Lanbide Heziketa modernoa izango dugula, orain arte ezagutu dugunetik oso desberdina kontzeptuetan, errealitatera egokitua, eta oinarri sendoa eskainiko duena herrialdearen garapenerako. Iruditzen zait jendarte gustura egongo dela hemengo ereduarekin, eta konfiantza izango duela”.

Berrikuntzaren hamaika erpin

Orrialde osoko diagrama handi bat betetzen du Bidasoa Lanbide Heziketa zentroko berrikuntza-proiektuen mapak. Erdian, ikasturte honetan abian izango diren lau proiektuak agertzen dira, eta inguruan oraingoz ideia besterik ez direnak, edo finantzaketa eta aliatu bila dabiltzanak; oraindik proiektu ez direnak, baina, horietako batzuk, izango direnak.

Abian diren proiektuen artean agertzen da Lanbide Heziketako zentroen artean Bidasoa erreferentziazko bilakatu duen dronen aplikazioen proiektua. Geodesia eta kartografian ingeniaria da Daniel Tena, Bidasoako Topografia eta Obra Zibilen departamentuko kidea, eta duela 10-12 urte fotogrametria teknikak aplikatzeari ekin zion bere departamentuko zikloetan; hau da, airez lorturiko irudiak erabiltzeari lur-eremu zabaletako mapak osatzeko. Denborarekin, "ikusitako softwarea eboluzionatzen zihoan heinean gero eta aukera gehiago zeudela, eta kamerak airean altxatzeko gai ziren makinak agertzen hasi zirela eta aire-irudiak lortzen zituztela, ordu arte hegazkin bidez bakarrik lor zitezkeenak". Hau da, bere alorretan teknologia berrien

eremuan agertzen ziren garapenei adi, dronen agerpenaren berri izan zuen Tenak eta, 2010ean zentroan planteatu zuen dron bat erostea; ordu arte ez zegoen halakorik Euskal Herriko Lanbide Heziketa zentro batean. Hortik abiatuta, Espainiako Gobernuako Hezkuntza Ministerioaren deialdi batera aurkeztu eta dronek Lanbide Heziketan izan zitzaizketen aplikazioak ikertzeari ekin zion. Gaur egun beraien formazio-zikloetan erabiltzen dituzte dronak, kartografian nahiz obra zibilean, eta, Lanbide Heziketarako Sailburuordetzarekin elkarlanean, dronen erabileraren inguruko espezializazio ikastaro bat sortzen ari dira, AESA estatuko aire segurtasunerako agentziaren habilitazioarekin. Tenak formazio sakona jaso du gai hauetan, eta erreferentzia bilakatu da.

Beste berrikuntza proiektu arrakastatsuetako bat biltegi inteligentearena izan da. Usurbilgo Lanbide Heziketa zentroarekin eta Bidemedia enpresarekin elkarlanean garatu dute hori Bidasoako ikasle eta irakasleek. RDIF (*radio frequency identification*) sistema bat garatu dute, biltegietatik zein erreminta ateratzen diren eta horiek nork atera dituen modu automatikoan identifikatzeko, baita itzuli al diren ere. Bidasoako mekanika tailerrean martxan jarri dute jada, eta erremintekin lanean aritzen diren biltegi handiek, Alemania edo Erresuma Batuko enpresa zenbaitek, teknologia hori eskuratzeko interesa agertu dute.



Daniel Tena, eskuratu dituzten lehen eta azken dronak esku banatan hartuta; dronek izandako garapena ikus daiteke.



“Askotan familian dago haurrek izan ditzaketen arazo askoren jatorria zein konponbiderako gakoa”

ELKARRIZKETA: ANNA LUNA

PEDAGOGOA, PSIKOMOTRIZISTA ETA ARRETA GOIZTIARREAN ADITUA

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan arreta goiztiararen eremuan egiten diren esku-hartzeak antolatzeko eta koordinatzeko oinarrizko arauak ezartzen dituen dekretua atera berritan, Anna Luna elkarrizketatu du Hik Hasi-k. Arreta goiztiarrean aditua den honek urteak daramatza arlo horretan lanean, Kataluniako CDIAT zentroetako batean. Hango esperientziaren berri emateko eta urteetan egin duten lana azaltzeko,

arreta goiztiarren inguruan Hik Hasi-k antolatutako jardunaldietan izango da, azaroaren 4an Bilbon, eta azaroaren 5ean, Donostian. Haren esanetan, haurrak berez ditu gaitasunak, eta arreta goiztiararen eremuan diharduten profesionalen egitekoa da gaitasun horiek ahalik eta hobekien gara ditzan lagun egitea; “baina haurrak markatuko du beti bere garapenaren erritmoa”.

Urte asko daramatzazue Katalunian arreta goiztiararren arloan lanean. Hain zuzen ere, Centro de Desarrollo Infantil y Atención Temprana (CDIAT) zentroak arduratzen dira haurren garapenaz eta arreta goiztiarraz, eta Kataluniako herritar guztien eskura daude. Zuk zero-rrrek horietako batean egiten duzu lan. Zein da, zehazki, zentro horien egitekoa?

Zentro horiek 0 urtetik 6ra bitarteko haurrez eta haien familiez arduratzen dira. Ikuspegi biopsikoziala kontuan izanik, laguntza behar duen 0-6 urteko haurra eta haren familia dira helburu ditugun publikoak. Ez gara soilik patologiez ari, zailtasunak dituzten umeez edota arrisku-egoeran daudenez ere ari gara. Arazo ororen aurrean, zenbat eta lehenago esku hartu, orduan eta eragin txikiagoa izango du arazo horrek; horixe uste dugu guk.

Zeri esaten diozue haurra arrisku-egoeran egotea?

Adibidez, hauskortasunarekin jaiotzen den haur bat arrisku-egoeran dagoen haurra litzateke. Hor daude,

esate baterako, garaia baino lehen jaiotzen diren umeak ere. Kontuan izan behar dugu haur heldugabe baten aurrean gaudela, eta egoera hori estresarekin bizitzen ari den familia baten aurrean. Haur horri eta familia horri babesa ematen badiezu, horien antsietateei eta beldurrei tokia egiten badiezu, eta denbora eman, segur aski, bai haurrak eta bai familiak inolako ondoriorik gabe egingo dute aurrera.

Era berean, arrisku-egoeran leudeke bizirik irauteko egoera sozial defizitarioa duten haurrak ere, edota bestelako ezbeharrak egokitzen zaizkien haurrak. Alegia, ez ditugu patologia duten umeak eta haien familiak soilik artatzen. Gurasoak dibortziazten direla, familiartekoren bat hiltzen dela... horrelako kasuak ere izaten ditugu. Azken batean, haurrei zein gurasoei ondoeza eragin diezaieketen egoerez ari gara. Horrek esan nahi du, arlo neurologikoa ez ezik, haurraren giroa landuz ere jarduten dugula.

Azken batean, haurrarekin bizi duen egoera baten aurrean bere burua ezinean ikusten duen edozein gurasok jo dezake guregana. Gero, guk eraba-

kiko dugu kasu horri zein trataera eman. Dena den, familia osoa izaten dugu kontuan, eta, umearekin ez ezik, gurasoekin ere egiten dugu lan.

Arreta goiztiarra kontzeptuak gaizki-ulertuak sorrarazten ditu maiz, oraintsu arte estimulazioaz hitz egin izan delako. Argitu dezakezu zein den bi kontzeptu horien arteko alde?

Estimulazio kontzeptua erabili zen lehenengo. Horren arabera, falta zaion guztia kanpotik ezarri behar zaio haurrari. Beraz, haurra estimulatu egin behar da, berak berez ez dakarren hori garatzea lor dezan. Ikuspegi horren arabera, uste da, kanpotik estimulatu ezean, haurrak ez duela behar bezala aurrera egiterik lortuko.

Aldiz, beste bat da arreta goiztiararren atzean dagoen filosofia: ahalik eta azkarren artatzea laguntza berezia behar duen haurra. Umeak berez du gaitasuna, eta gure egitekoa da haur horri lagun egitea, gaitasun horiek ahalik eta hobekien gara ditzan. Baina haurrak berak markatuko du bere garapenaren erritmoa, ez guk. Beraz, askoz ere errespetu handiagoko lana



eskatzen du arreta goiztiarrak.

Zuek, ordea, beste urrats bat ere egin duzue: haurraren garapenerako zentroak sortu dituzue.

Hala da, bai. Haurraren Garapenerako Zentro izatera igaro ginenean, lehen haurtzaroan espezializatutako familien arretarako zentro bilakatu ginen. Gure helburua pertsoneri, nola haurrei hala gurasoei, lagun egitea da. Eta familiekin batera elkarlanean jardutea, haurraren garapena ahalik eta onena izan dadin.

Beraz, zuen ustez familia da funtsa.

Bai. Arreta goiztiarrean lan egiten dugun profesional guztiok prestatu behar izan dugu familiekin lan egiteko. Askotan, arazoan jatorriaren fokua zein konponbidearena familian dagoelako. Haurrak jaiotzetik patologiaren bat baldin badakar ere, familiarekin egin behar da lan, patologia hori nola bideratu jakin dezan. Gu aldi batez egoten gara haurrarekin, baina familiari eskaintzen dioguna bizitza osorako izango du.

Zuzenean haurrekin eta familiekin lan egiteaz gain, eskolekin ere aritzen zarete?

Bai, biak egiten ditugu. Batetik, zentroan hartzen ditugu haurrak, eta, bestetik, CDIAT bakoitzak prebentzio-lana egiten du dagokion zonako eskolekin. Eskoletara bisitak egiten ditugu, eta aholkulari-lanetan aritzen gara. Irakasleek gurekin partekatzen dituzte zenbait egoeraren aurrean dituzten kezak. Gure helburua da normaltasunaren barruan sartzen diren arazo eta zailtasunak irakasleek eurek tratatzea, bai haurrekin eta baita familiekin ere. Guk babesa eskaintzen diegu, eta orientatu egiten ditugu. Aldiz, arazoak beste dimentsio bat hartzen duela ikusten badugu, eskolatik kanpoko zerbitzuetara bideratzen ditugu. Haurra 0-3 adin-tartean nahiz 3-6 tartean eskolan badabil, beti izango du gurekin kontaktu-motaren bat. Baina haur-eskola erabiltzen ez duten familiak ere inolako arazorik gabe etor daitezke guregana.

Beraz, normalean eskoletatik iristen dira haurrak zuen zentrorra?

Normalean familiak jotzen du guregana. Ez gaituzte familia guztiak ezagutzen, baina gure berri izaten dute normalean, ospitalearen, pediatriaren edota haur-eskolaren bidez, edota beste familiaren batek esanda. Funtsezkoa da hori. Ez dugu umerik artatzen, familiaren eskaerarik ez badago. Irakasleak guk esku hartu behar genukeela ikusten badu ere, azken hitza familiak dauka.

Zuen zentroa erabiltzearen truke ezer ordaindu behar du familiak?

Ez. Doakoa da 80ko hamarralditik. Eta horixe izan da gure lorpen handiena. 0-6 urteko haurrak dauden familia guztietara iritsi gara. Sekularako lorpena da. Izan ere, horrelako zerbitzuak ordainpekoak direnean, baztertuta geratzen dira askotan zerbitzua gehien behar dutenak.

CDIAT zentro horietan, zer profesional-mota daude?

Diziplina anitzeko eta diziplinarteko lantaldeak gara. Neuropediatrak, psikologoak, logopedak, fisioterapeutak eta langile sozialak gaude.

Eta psikomotrizistak?

Psikomotrizista lanbiderik ez dagoenez, ez da hor sartzen psikomotrizitatea. Baina psikomotrizista asko dago talde tekniko horietan. Eta, gainera, handitzen ari da psikomotrizitatean prestakuntza edukitzeko eskaria. Gero eta gehiago dira psikomotrizitateko prestakuntza duten fisioterapeutak, logopedak, psikologoak... Izan ere, bizitzako lehen aroan umeengana iristeko eta umeekin harremanetan jartzeko bidea da psikomotrizitatea, aldi horretan gorputza delako umearen komunikaziorako bitarteko nagusia.

Arreta goiztiarraren arloan hasi zinetetik, izan da bilakaerarik?

Lehen baino gauza gehiago antzematzen ditugu. Lehen gainetik pasatzen genituen atal askotan jartzen dugu orain arreta. Adibidez, autismoa duten haurrak izaten jarraitzen dugu, hori argi dago; baina haur horiek hartzen dituzten zentroek esaten digute ez direla lehen bezain kaltetuta iristen. Hor dago patologia; guk ez

“Haurrarekin bizi duen egoera baten aurrean bere burua ezinean ikusten duen edozein gurasok jo dezake guregana”

“Beste bat da arreta goiztiarraren atzean dagoen filosofia: ahalik eta azkarren artatzea laguntza berezia behar duen haurra. Umeak berez du gaitasuna, eta gure egitekoa da haur horri lagun egitea, gaitasun horiek ahalik eta hobekien gara ditzan”

“Ez dugu umerik artatzen, familiaren eskaerarik ez badago. Irakasleak guk esku hartu behar genukeela ikusten badu ere, azken hitza familiak dauka”.



dugu patologia kentzen, baina asko arintzen dugu.

Beraz, prebentzio-lanaz ari gara hizketan.

Bai, beste ezeren aurretik, prebentzio-lana egiten dugu guk, bai patologia dagoen kasuan, baina baita normaltasunaren barruan sartzen ditugun kasuetan ere. Izan ere, irakasleek badakite hilean behin handik pasatuko garela, eta, umeren batek kezkatzen baditu, badakite gure laguntza eta babesa izango dutela. Irakasleekin hitz egiten dugu, eta horrek berak beste era batera kokatzeko aukera ematen die; sarri, familiarekin lan egiteko moduan izaten dira eskolatik bertatik.

Nola egiten dituzue diagnostikoak?

Hasieran, arazo eta zailtasun neurologikoak zekartzaten umeak tratatzen genituen. Garun-paralisia zuen ume bat irits zitekeen, edota sindrome bat zuen haur bat, alegia, patologia neurologiko bat zuena. Gerora, ikusi dugu badaudela zenbait patologia, umea bilakatzen doan heinean gartzan edo agertzen direnak. Haurraren lehen urtebetean, badaude zenbait sintoma. Ezin diegu beti izen zehatz bat eman, baina argi uzten dute haurra gure arreta eskatzen ari dela. Haurra ondoeza edo ezinegona ari

zaigu adierazten. Sintoma horiei adi egoten gara gu, bilakaera ikusteko eta zein ondorio izan ditzaketen aztertze-ko. Haurtzaroan haurra gorputzaren ikuspegitik nola ari den antolatzen edota espazioak nola ikertzen dituen behatuz nabaritzen dira sintoma horiek. Txikitatik tratatuz gero, litekeena da haur horrek inolako ondoriorik ez garatzea.

Dena dela, inoiz ez da esaten gure diagnostikoetan umeak arreta-defizitaren nahasmendua duen, edo autista den, edo ez dakit beste zer duen... Subjektuaren prestakuntza-arloan gaude, eta ezin dugu esan 0 urteko haur batek nahaste psikotiko bat duela, edota nahaste autista bat duela. Ezin dugu horrelakorik esan oraindik.

Haur horiek guztiak ohiko eskoletan integratzen dira gero?

Denak ez. Heziketa bereziko eskolak ditugu guk. Eta haietan sinesten dugu. EAEn heziketa bereziko zentroak itxi zirenean, asko erreparatu genion zuen ereduari; gure erreferente izan zen. Eta guk ere sekulako gogoia genuen eskola inklusiboa izan zedin; baina eskola puntu batera arte da inklusiboa. Erabat inklusiboa izan dadin, guk ditugun baliabideak baino askoz gehiago behar dira. Horrexegatik, beharra duen hainbat umek eskola arruntaren eta heziketa berezikoaren artean partekatzen du bere jarduna.

Dena den, hau guztia familiarekin egin beharreko lana dela ulertzen dugu guk. Familia delako, azken batean, erabakitzen duena. Ume bat heziketa berezian sartzen den unean, aipatu berri dudan eredu partekatutako horretan hasten da normalean. Alegia, ordu batzuk heziketa bereziko zentroan ematen ditu, eta gainerakoa, ohiko eskolan. Baina umea berehala hasten da bere nahiak adierazten, eta, adierazpenok egiten dituenean, kasu egiten diote gurasoek ere, eta umea non sentitzen den hobeto ikusten dute. Prozesu horretan, hor gaude gu ere, noski, familiari lagun egiteko.

Dena den, oso handia da premia bereziak dituzten haurren kopurua. % 10 inguru direla esaten da. Posible da guztiari erantzutea?

Hori da gure erronka. Sekulako arrakasta izan dugu, eta familia asko datoz gurera uneotan. Horregatik, gero eta talde-lan handiagoa egiten dugu, lan komunitarioa, eta taldean jarduten dugu familiarekin ere. Era berean, itxarote-zerrenda ondo kudeatzen saiatzen gara. Haurraren bizi-tzako lehen urtean, ez diogu hilabete baino gehiago itxaronarazten.

Zenbait auzotan, komunitateko beharrei erantzuteko ere lan egiten duzue eskolarekin elkarlanean, ezta?

Bai. Horixe da, adibidez, Bartzelonako Sant Andreu auzoko Baró de Viver eskolaren kasua, lantoki dudana CDIAT zentroari dagokiona. Etorkin asko bizi den zonaldea da. Askotan, zail egiten zaizkie eskolan sartzeko prozesua eta egokitzapena. Dakarten kulturagatik, zaila egiten zaie, adibidez, umea eskolan uztea. Mesfidantza-egoera bat dagoelako. Kontuan eduki behar dugu umea dela daukaten gauzarik garrantzitsuenak, eta nola utziko dute fidatzen ez diren toki batean?

Hala, Baró de Viver eskolaren kasuan, 2015eko urritik abendura, psikomotritate saio bat antolatu genuen astero eskolako irakasleekin, gurasoak gonbidatuta. Familiei eskolan sartzeko aukera eman diegu, eta horixe da garrantzitsuenak; irakasleekin egon dira, haiek euren haurrekin psikomotritate-saio bat egiten ari zirenean bitartean. Eskolan dagoen bitartean haurrak zer egiten duen jakiteko aukera izan dute, eta eskolarekin zuten lotura estutu

dute. Guk proiektuari hiruhileko bat soilik eskaini diogun arren, oso eragin positiboa izan du. Eskolak familien konfiantza lortu du, ingurune horretan eurak ere kontuan hartzen direla eta zeresana badutela ikusi dutelako. Eta, horren ondorioz, haurrak ere askoz modu samur eta naturalagoan integratu dira eskolan.

Ezagutzen duzu arreta goiztiarrari buruz Eusko Jaurlaritzak atera duen dekretua? Badirudi ebaluaziorako probak egingo direla.

Guk ez daukagu haurrei egiteko proba espezifikorik. Guk sekulako sentsibilizazio-lana egiten dugu irakasleekin. Uste dugu garrantzitsua dela kontuan izatea arrisku-sintomak. Irakasleei esaten diegu zalantza duten horren inguruan kontsulta egiteko, eta esateko lasai zer ari den gelan gertatzen. Behaketa-lan handia egiten dugu denon artean, baina ez daukagu inolako proba espezifikorik haurrei egiteko.

Hori bai, probak egiten dizkiegu gurekin tratamendua egiten ari diren haurrei, ume bakoitzak duen patologia zehatz horrek haurraren globaltasunari nola eragiten dion jakin nahi dugulako. Nolabait esatearren, proba estandar bat pasatzen diogu haurrari ordurako dakiguna baieztatzeko, baina guk argi dugu inola ere ezin dugula haur hori ezagutu, proba horretan oinarrituta; haur horri gertatzen ari zaionari modu objektibo batean erantzuten laguntzen digute.

Eusko Jaurlaritzaren dekretutik, gauza batek harritu nau. Ondo ulertu badut, kanpoko zentro batzuk aurreikusten ditu umeen baloraziorako. Eta zentro horiek izango dira gero tratamendua egingo dutenak ere. Egun bateko edo biko esplorazioarekin, ezin duzu haur bat ezagutu, nire ustez; prozesu batean joango zara ezagutzen. Zentzu horretan, gurasoak eta irakasleak dira lehen batean umearekin egunero daudenak eta umea gertutik behatzeko modua dutenak, ez egun batean edo bitan umearekin egongo den aditua.

Eusko Jaurlaritzaren dekretua, antza, proba estandarrez ari da. Adibidez, "hanka baten gainean salto egin dezake bost aldiz".

Horrek ez dauka inolako zentzurik. Izan ere, haurraren garapena oso modu zabalean ulertzen dugu guk.

Haurrari denbora ematen diogu. Umeak denbora behar du gara dadin, eta erritmo desberdina dute haur guztiek. Gainera, umea blokeatu egin daiteke batzuetan, eta arazo zehatz bat izan dezake une jakin batean, gauza zehatz baten inguruan; baina horrek ez du esan nahi haur horrek gaitasunik ez duenik arazo hori gainditzeko. Denbora emanez gero, sekulako aldaketak ikusten ditugu sarri, umeak oso plastikoak direlako. Horrexegatik artatu nahi ditugu ahalik eta azkarren haurrak, maiz eurek sortzen dutelako behar duten aldaketa, zaintza txiki-kin. Askotan, haurraren testuingurua aldatzen bada, haurrak erreakzionatu egiten du, eta aurrera ateratzen da. Beste batzuetan ez. Mirariak ere ez ditugu egiten. Patologia bat baldin badago, errealitate hori onartu behar da, eta aurre egin behar zaio.

Hala ere, ez da gure egitekoa horren ume txikiak diagnostikatzea eta etiketa jartzea; bai, aldiz, haien ondoan egotea. Umearen aldamenean egon behar dugu, haurrak egiten duenari eta haren garapenari oso adi; baina ezin dugu inola ere umea etiketatu, eta haur hori 15 urterekin nolakoa izango den aurreikusi.

Baina, edozein proba edo ebaluazioen bidez haurrari zer falta zaion diagnostikatuz gero, hori etiketa jartzea bezala da, ezta?

Baina guk ez dugu nahi izaten arreta umeari falta zaion horretan jartzerik; aitzitik, umea globaltasunean hartzen dugu, eta osotasunean ikusten dugu. Oso garrantzitsua da hori kontuan izatea, bestela, estimulazio goiztiarrak ariko ginatekeelako hizketan, eta umeari falta zaion horretan jo eta ke arituko ginatekeelako. Eta, askotan, huraxe izaten da hain justu ukitu behar ez dena. Izan ere, kostatzen zaion hartatik abiatuta edota kostatzen zaion hartan arreta jarriz garatu behar badu, umeak ezingo du aurrera egin. Baina dauzkan gaitasun horiek sustatuz, baliteke kostatzen zaion horretan ere gartzen joatea. Adibidez, eskuan bakarrik jartzen badut arreta, umea arazoa duen atal horretan geratzen da blokeatuta, eta ez du kontuan hartzen bere osotasun guztia. Bizitzako hasierako etapan, ordea, umearen globaltasuna eduki behar da kontuan, eta, pentsa, globaltasun hori familiaraino iristen da, edota irakasleenganaino, pediatrenganaino...

“Egun bateko edo biko esplorazioarekin ezin duzu haur bat ezagutu, nire ustez; prozesu batean joango zara ezagutzen”

“Guk ez dugu nahi izaten arreta umeari falta zaion horretan jartzerik; aitzitik, umea globaltasunean ikusten dugu. Oso garrantzitsua da hori kontuan izatea, bestela, estimulazio goiztiarraz ariko ginatekeelako hizketan, eta umeari falta zaion horretan jo eta ke arituko ginatekeelako. Eta, askotan, horixe izaten da hain justu ukitu behar ez dena”

ESPERIENTZIAK

PLISTI PLASTA

NATURA HEZIKETARAKO ESPAZIO

Hirugarren ikasturtea hasi berri dute Ozetako (Araba) Plisti Plasta heziketa gunean. Basoan dagoen eskola da Plisti Plasta, baina bertako arduradunek “baso-eskolaz” baino nahiago dute naturan dagoen heziketa espazioaz hitz egin. Mendian, aire librean ikasten dute Plisti Plastako haurrek. Bisita egin die Hik Hasi-k, Euskal Herrian martxan den naturako lehen hezigunea ezagutzeko.



Euria ari, haizea ibili, izotza egin, sargori egon... 3 eta 6 urte arteko 22 neska-mutiko inguruk basoan igarotzen dute goiza Plisti Plastan. Naturak eskaintzen dituen baliabideak soilik erabiltzen dituzte heziketa-bide gisa, eta egunero, basoan ibili ostean, goizean aurkitu bezala uzten dute ingurunea, gizakiarenak izan ohi diren ezelango arrastorik gabe.

Plisti Plastaren atzean dagoen filosofia argia da: “Natura ez da gurea, baizik eta gu gara naturaren parte”, hala azaldu diote Hik Hasi-ri Mireia Baz eta Andrea L. Pariza heziketa gunearen bidelagunek eta arduradunek. Izan ere, egunero basoan biziz, inork kanpotik ezer esan beharrik gabe, ekosistema horretako zikloaren

barnean txertatzen dira haurrak. “Ez dute *Zuhaitzaren egunik* behar natura zaintzen ikasteko, baizik eta badakite basoa euren etxea dela, naturaren parte direla eta hori bizi dute”.

Europa iparraldean ohikoak dira baso-eskolak. Alemanian, adibidez, 1.000tik gora daude. Hangoa da baso-eskolaren esperimentatzailer handienetarikoa bat ere, Philip Bruchner. Besteak beste, berarekin egin dute baso-eskolaren inguruko formazioa Andreak eta Mireiak.

Bizipena da ikaskuntzaren oinarri Plisti Plastan. Egun batean lokatzetan ibiliko dira, hurrengoan lurra lehorra dagoela konturatuko dira, beste batean hostoak horitzen hasi direla behatuko dute, edota haizeak zuhaitzak mugitzen dituela, perretxikoak

atera direla... masustak jango dituzte, behiak larrean nola dabiltzan ikusiko dute... Azken batean, esperimentaziorako espazio aberatsa da basoa, toki lasaia, isila, gaurko gizarteak ematen dituen estimulu azkarrik gabea... Eta espazio natural horretako parte dira haurrak, horrek guztiak eskaintzen dituen baliabideekin. Hala dio Mireiak: “Naturako elementuek hamaika erabilera izan ditzakete. Haur asko erabilera zehatz bat duten material egituratuekin dago ohituta, baina hemen ez dago horrelakorik. Basoan, egun batean makila bat ezpata izan daiteke, beste batean zenbatzeko balio dezake, hurrengoan erratza bezala erabiltzeko edota etxea eraikitzeko. Naturan sormena izugarri garatzen da”. Eta zera gaineratzen



du Andreak: “Gaitasun motorra lantzeko ere aukera paregabea eskaintzen du basoak. Zuk psikomotrizitateko gelarik onena presta dezakezu, baina inoiz ez du izango naturako espazio baten aberastasunik. Basoak, gainera, taldean nahiz bakarka ibiltzeko aukera ematen die haurrei, nahieran jardutekoa”.

Plisti Plastan ez dute basoak ematen dituen baliabideez bestelako ezer erabiltzen. 2015-2016 ikasturtean, behin soilik eraman zuten Montessoriren material bat, haurrek igelaren arrautzak ikusi eta haien gaineko interesa erakutsi zutelako. Hain zuzen ere, igelaren zikloa nolakoa den azaltzen duen materiala erabili zuten, baina kasu bakarra huraxe izan zen. Gainera, hezitzaileek argi diote: “Umeari aukeratzeko ematen badiotzu, naturako elementu bat aukeratu du beste edozeren aurrean. Gainera, zenbat eta material gutxiago eskaini, sormena gehiago landuko du. Izan ere, nahi duen hori egiten saiatuko da, baina basoko baliabideekin”.

Pixkanaka, proiektua sendotzen

2014ko azaroan hasi zuten Plisti Plastako proiektua bost umerekin eta

bi bidelagunekin. Ordurako hamar bat urte zeramatzaten Plisti Plastako arduradunek errespetuzko heziketaren inguruan ikertzen. Geroago, Madrilgo Saltamontes proiektua —naturan heztea helburu duen egitasmoa— ezagutu zuten, Kiribilore Permakultura elkarteko partaide ere baziren, eta, Ozetako Udalak lokal bat utzi zenez, Plisti Plasta proiektua martxan jartzea erabaki zuten, heziketarako ohiko eskolaz bestelako esperientziak bizitzeko. Geroztik, basoan heztearen inguruan formatu dira, batez ere, eginez ikasi dute, eta pixkanaka hazten eta ontzen joan da proiektua.

Haurraren erritmoaren eta nahien errespetuan oinarritzen badira ere, antolaketa zehatza dute Plisti Plastan eta baita hainbat errutina ere egunero errepikatzen dituztenak. Goizeko 10etan Ozetako frontoi alboko zuhaitziko enborretan elkartzen dira familiak eta hezitzaileak. Familiako kideek alde egin ondoren agurra egiten dute: nor falta den, zer egiteko gogoia duten, egun horretan nora joatea gustatuko litzaiekeen, zer moduz sentitzen diren... eta horren guztiaren inguruan mintzatu ostean,

abesti bat kantatzen dute eta basora abiatzen dira. Baso txikira edo baso handira joan ohi dira, umeen nahieren eta eguraldiaren arabera. Baso handian badituzte beste erreferentziako leku batzuk ere: putzua, erreka, hamaiketakoaren lekua, eskalatzeko leku handia eta leku txikia, ganadua egon ohi den belazea... Eta beste horrenbeste baso txikian. Gainera, toki horiek guztiak, haurrek eurek pixkanaka aurkitutakoak dira, izenak ere haiek emandakoak.

Basora abiatzen direnean zenbait tokitan geldialdiak egiten dituzte, haur guztiak erritmo ezberdinak dituztelako, eta taldean dabiltzanez, eta bi hezitzaileek haur guztiak zaindu behar dituztenez, inor bistatik galdu ez dezaten: “Askotan guk ezer esan gabe itxaroten diete atzetik datozeinei; beste batzuetan berriz, korrikari joateko gogoia izaten dute handienek eta guk gogorarazten diegu txikienei itxaron behar diegula inor ez galtzeko. Hala ikasten dute, guztiok erritmo desberdinak ditugula, baina talde bat osatzen dugunez denok batera mugitu behar dugula”, dio Andreak.

10:00etatik 13:30era arte ibiltzen dira basoan. Arropa eta oinetako

“Plisti Plastako haurrek ez dute Zuhaitzaren egunik behar natura zaintzen ikasteko; badakite basoa euren etxea dela eta naturaren parte direla, hori bizi dutelako”

“Naturan hainbat gaitasun leku itxietan baino hobeto garatu ahal direla uste dugu guk. Zuk psikomotrizitateko gelarik onena presta dezakezu, baina inoiz ez du izango naturako espazio baten aberastasuna”

“Umeari aukeratzeko ematen badiozu, naturako elementu bat aukeratuko du beste edozeren aurrean. Zenbat eta kanpoko material gutxiago eskaini, sormena gehiago landuko du, nahi duen hori egiten saiatuko delako, baina basoko materialekin”

bereziak dituzte, bustiari eta hotzari aurre egiteko prestatuak. Eta arropak ere eramaten dituzte, inor busti bada aldatzeko. Eguraldia oso txarra bada, frontoia eta aldameneko gela ere erabiltzen dituzte, baina Andreak eta Mireiak adierazitako moduan, 2015-2016 ikasturtean bospasei aldiz soilik geratu ziren basora irten gabe.

Beraz, basora joaten direnean, lehendabizi euren kasa jolasean ibiltzen dira haurrak: zuhaitzetara igo, orbelarekin jolastu, putzuan sartu, zapaburuak harrapatu, amaketan aritu, etxetxoak egin, malda gora eta behera zilipurdika ibili, harrapaketan jardun... Hasiera horretan hezitzaileak bigarren planoan geratzen dira. Gero, hamaiketako egiten dute, lurrean manta bat zabaldu eta denak gainean eserita. Bakoitzak bere motxilan ekartzen du etxetik janaria. Amaitu ahala jolasera joaten dira eta guztiek bukatzean hezitzaileek proposatutako jarduera bat egiten dute: “Tarte horretan gure parte-hartzea

beste era batekoa izaten da. Alegia, hamaiketako aurretik jolasean libre ibiltzen direnean gu bigarren plano batean geratzen gara, nahiz eta gatazkaren bat baldin badago gerturatzen garen gure presentziak segurtasuna eman diezaien, baina gainontzean ez dugu esku-hartzerik egiten. Aldiz, hamaiketako osteko jolasean gu aktiboago gaude, guk ere parte hartzen dugulako. Helburua da haurrak berriro ere gurekin emozionalki konektatzea, hala, gero beren jolasean jardutea errazago egin dakien”.

Beraz, hezitzaileekin batera eginiko jolasaren ostean, eurek aukeratzten duten beste leku batera joan eta beren kasa jarduten dute jolasean, eta horren ondoren, atzera ere frontoi ondoko enborretara abiatzen dira. Baina bideko gune zehatz batean goizeko jarduna ixteko —egunaren arabera toki batean edo bestean— ipuin bat kontatzen diete, beti ahoz, inolako euskarririk erabili gabe. 13:30erako frontoira itzultzen dira, katiuskak eta



arropa berezia kendu eta gurasoekin elkartzan dira. Hala nahi duten familientzat zaintza zerbitzua ere badute 9:00etatik 10:00etara eta 13:30etik 14:30era.

Hiru oinarri pedagogiko

Heziketarako bitarteko gisa basoak edota naturak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeaz gain, Plisti Plastian badituzte bestelako hainbat oinarri pedagogiko ere. Hiru ildotan barnebiltzen dituzte:

1. Haurraren garapen prozesuaren errespetua:

gizakiok izaki biologiko garen heinean, barne-plan batekin jaiotzen garela diote Plisti Plastikan arduradunek, eta barne-plan hori garatu ahal izateko inguruan baldintza zehatz batzuk eman behar direla. Hori litzateke hain zuzen ere bidelagunaren egitekoa, alegia, segurtasunezko giro emozionala eskaintzea: “Helduaren egoteko modu adeitsuaz eta maitekorraz ari gara, umeari gertutasuna eskaintzeaz. Horrekin batera, umearekin lotura emozionala egitea lortu behar dugu, izan begiradarekin, ahozko hizkuntzaren bidez, jolasaren bidez...”, argitzen du Andreak.

Horrez gain, haurren emozioak onartzea eta emozio horiek adie-

razteko espazioa ematea ere oso garrantzitsua iruditzen zaie Andreari eta Mireiari: negarra, aharrusia, dardara, barrea... “Komunikazio zintzoa” deitzen diote horri, eta entzute aktiboarekin nahiz komunikazio ez bortitzarekin lortzen dute: “Gure egitekoa da haurrei itzultzea eurek esaten dutena, egiten dutena, sentitzen dutena... epaitu gabe, soilik haiei entzunaz eta haiek behatuz”.

“Diziplina demokratikoaz” ere hitz egiten dute Plisti Plastian. Kontuan hartzen dute zeintzuk izan daitezkeen heziketa espazio horretan dauden arrisku aktiboak eta elkarbizitzarako zer-nolako arauak behar dituzten. Era berean, bidelagunen nahiz haurren premiak zeintzuk diren, eta umeak zaindu ahal izateko zein behar dituzten ere aintzat hartzen dute. Eta horretan guztian oinarrituz arauak eta mugak ezartzen dituzte, baina beti zigorrak eta sariak saihestuz.

Ikuspegi hori bera aplikatzen dute gatazkak daudenean ere: “Eurei uzten diegu gatazkak konpontzen. Erasoaren bat egongo dela ikusten badugu, berriz, hurbildu egiten gara muga fisikoa jartzeko eta gure presentziarekin haurra lasaitzen saiatzen gara. Galtzailerik gabeko metodoa da, arazoari eurek aurki diezaien konponbidea”. Horrekin guztiarekin, helduek

ere ikasten dutela diote, prozesu horien parte direlako, eta bizipenak hausnarketarekin eta teoriarekin lotuz aurrera egiteko balio dielako.

2. Jolas askea eta espontaneoak:

haurraren garapenerako oinarritzko elementua da jolasa Plisti Plastikan proiektuan, uste baitute horixe dela gako nagusia umearen autonomia eta nortasuna garatzeko, bizitakoia barnerratzeko eta inguruko mundura egokitzeke: “Tentsioak husten dituzte jolasaren bidez eta, gainera, esperientzia hori gozagarria zaie. Jolasak, bideratua ez den heinean autoestimua sustatzen du, umeen arteko harremanak sendotzen ditu, elkarrekiko errespetua lantzeko balio du eta bakoitzak norbere buruarenganako konfiantza suspertzeko. Hobeto finkatzen da garunean ikasitakoa, benetan eurek erabaki dutelako jolas hori egitea, eta jolasaren diseinuak eta arauak negoziatzean lengoia nahiz gaitasun sozialak garatzen dituzte. Maria Montessorik zioen moduan, jolasa umeen lana da”.

Kontuan izan behar da, gainera, jolas horretan ume guztiak batera aritzen direla, alegia, adinak nahasian. “Niretzat hor sekulako aberastasuna dago. Adinak nahastea klabea da”, dio Mireiak. Izan ere, hala,



ESPERIENTZIAK: PLISTI PLASTA

batzuek besteengandik ikasten dute: “Adibidez, txikitxo bat jausi egiten bada, nagusi bat etortzen da eta lagundu egiten dio, gure zain egon gabe. Eta nagusiek ere txikiengandik ikasten dute; adibidez, haiek erritmo ezberdina dutela konturatzen dira eta pazientzia izaten eta itxaroten ikasten dute”.

3. Natura oinarri: naturak kalitatezko espazioak eskaintzen ditu Plisti Plastako arduradunen arabera, leku itxiek inolaz ere imitatu ezin dituztenak; esate baterako, garapen motorra lantzeko, alegia, eskalatzeko, igotzeko, jaisteko, salto egiteko, zintzilikatzeko, arrastaka ibiltzeko... “Naturan hainbat gaitasun leku itxietan baino hobeto garatu ahal direla uste dugu”. Horrekin batera, kontzentratzeko gaitasunari ere naturak onura egiten diola diote hezitzaileek, lasaitasuna eta sosegua ematen duelako eta espazio zabala eskaintzen duenez haur bakoitzak bere tokia bilatu dezakeelako. Basoarekin kontaktuan egoteak jakin-minari eta irudimenari ere bidea irekitzen dio. “Egunero aldatzen bada ingurua, egunero aurkitzen dituzu gauza berriak”. Eta horrekin lotuta legoke ziurgabatasunaren kudeaketa ere: “Egunero joaten gara basora, baina ez dakigu

putzua nola egongo den, edo izoztu den edo lehorra dagoen, edo zapaburuak dauden...”.

Esperientzia zuzena edukitzeko eta zentzumenen integrazioarako ere aukera paregabea ematen du naturak, azken batean, “naturan dena delako koherentea”. Eta horrekin batera, haurrek basoko egurra, harriak, ura, lokatza... ukitzen dituzte eta zuzenean esperimentatzen dute hotza dagoen, beroa, bustia, gogorra, latza... Andreak eta Mireiak dioten moduan, azken batean, “basoa laborategi bat da”. Animaliak, landareak, zuhaitzak, harriak, hostoak, lurra, adarrak... Ura izoztu egiten dela, elurra egiten duela, ikusi duten animalia hori arrabioa dela, udazkenean hostoak erortzen direla, udaberrian kukua kantuan hasten dela, lokatza lehortu egiten dela... hori guztia bizipenetik ikasten dute, liburuen edo fitxen edo irakaslearen azalpenen beharrik gabe. “Eta naturarekin kontaktuan bizitzeak osasunari ere onura besterik ez dio egiten”.

Eguneroko jardunaren nolabaiteko ebaluazioa egiteko behaketan oinarritzen dira Andreak eta Mireia. Uneoro ari dira behatzen. Gainera, bi hezitzaileek aste batetik bestera funtzioak aldatzen dituzte. Aste batean bata hartzen du goiza dinamiza-

tzeko ardura eta beste hezitzailearen egiteko nagusia hari laguntzea izaten da. Eta hurrengo astean funtzioak aldatzen dituzte. Hala, uneoro umeak egiten ari diren horretan arreta jarri eta behatzeko aukera dute. Horrez gain, hilean helburu bat jartzen dute. Adibidez, autonomiaren bidean, eskuak haurrek eurek bakarrik garbitzea.

Gurasoak gustura daude haurrak Plisti Plasta dabiltzalako. Guraso batek esandako moduan: “Eurendako hau egunero txango bat egitea bezalakoa da”. Gurasoekin eguneroko harremana dute Plisti Plasta eta haien bidez ere izaten dute haurrei buruzko informazioa: nola egin duen lo, katarrorik duen, zein beldur dituen... Etxera nola heltzen diren ere esaten diete: ahaldunduta, oso lasai, zuzenean euren jolasean zentratzeko gogoz... Familiak hezitzaileei adierazi dietenez, haurrak pozik ikusten dituzte eta hasi zirenetik izan duten eboluzioa positiboa da. Hezitzaileek eurek ere umeengan ikusi dute aldaketarik: psikomotrizitatean itzela, eta baita naturarekin konektatzeko eta basoa esperimentatzeko moduan ere: “Hasieran akaso lokatza ukitzeak erreparo apur bat ematen zien, orain berriz, lasai asko ibiltzen dia jolasean. Naturaren parte bilakatu dira”.



Hazi Hezi

haziera eta heziketarako euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen diogunon
komunitatea

www.hikhasi.eus

EKARPENAK 1

KATTUKA HAUR-ESKOLA

Familia-espazioak: esperientzia xume baten inguruko hausnarketa

Haurdun gaudenean, hainbat aukera eskaintzen zaizkigu; erditze-aurreko prestakuntza, haurdunaldirako yoga... Eta, jaio eta gero, gidatutako ekintza estimulatzaile asko eta asko, haur txikientzat. Baina, zure barrenetik sortu den pertsona txiki hori beso artean duzunean, nola hartu behar duzun inork azaldu ez dizunean, familia gertu ez duzunean, 16 aste dituela lanean hasi behar duzunean... , nork egiten dio kasu sentitzen dugunari? Laguntza gutxi daukagu haurra mundura etortzen zaigunean eta gure buruari ama “ona” garen galdetzen diogunean, frustrazioari eta ezjakintasunari aurre egin behar diogunean, errespetuzko heziketa bat eman nahi diogunean...

Ni neu ere horrela sentitu nintzen, nire lehenengo alaba jaio zenean. Hezitzailea naiz, bai, eta, 16 urteko bizitza profesionala izan arren, zailtasunak izan nituen hainbat unetan. Haurtzaroaren inguruko ezagutza izanda, oso desberdina izan zen niretzat amatasuna. Nire alabekin dudan lotura afektiboak eragin dit gehien. Argi dago, hezitzaile naizen aldetik, goxotasunak, afektibotasunak, eta abarrek gure lanean eragina dutela; baina umeekin dugun lotura ez da ama-alaben artean dagoen lotura (edo ez luke izan behar). Agerian geldi-



**Eider
Garde
Mazkieran**

Kattuka
Haur-Eskolako
hezitzailea

tzen dira askotan (ez beti, eta gero eta gutxiago, zorionez) profesionalen behar emozionalak, beldurrak... , eskolako haurrekin dituzten jarreretan. Lan pertsonal handia egin beharko genuke, kolektibo bat garen neurrian, horrelako jarrerak ekiditeko.

Orduan, ondorioztatu nuen beste ama guztiak bezala sentitu nintzela ni, hezitzaile urte askoan ibili arren, haurtzaroaren ezagutza izan arren, beste ama batzuek dauzkaten baliabideak baino gehiago izan arren. Inguruan hainbat pertsonak esaten zidatenari kasu egitera eraman ninduen horrek, eta nire sena alde batera uztera. Argi ikusi nuen zerbait falta zaigula gaur egungo jendaratean, amatasunean eta aitatasunean laguntzeko.

Egoera horrek erakutsi zidan zerbait egin behar nuela nire sena ahalduntzeko. Prestakuntzen aukeraketan selektiboagoa izaten hasi nintzen, eta, alde batetik, nire amatasunaren eraikuntzan lagungarriak izango ziren prestakuntza-saioak egiten hasi nintzen, eta, bestetik, profesionala naizen aldetik, besteei amatasunean eta aitatasunean lagun egiteko eta hezkuntza-praktikarako erabilgarriak izanen ziren baliabideak garatzen joan nintzen.

Haur-eskolako lantaldean, argi daukagu prestakuntzetan jasotzen duguna taldean landu eta hausnartu



behar dugula, ondorioak atera behar ditugula, erabakiak hartu behar ditugula, eta taldeko koherentzia sustatu behar dugula. Talde-lan hori gabe, oso garbi daukat bestelakoak izanzen zirela nire ibilbide pertsonala eta profesionala.

Oraindik gogoan dut 2013an Hik Hasik antolatutako jardunaldi hau: *Eskolaren eta familiaren arteko harremanak, haurren garapen osorako lagungarri*. Aukera izan nuen hainbat laguni entzuteko, eta nire arreta erakarri zuen hizlari batek esandakoak. Elia Martinez katalana zen; “La Céspedes” erlazio- eta elkartzeguneaz aritu zen. Pentsatu nuen oso esperientzia aberasgarria izan zitekeela, eta ikusi nuen, gainera, beharrezkoa dela horrelako zerbaït gure inguruan.

Argi dago urteen joanean aldatu egin direla familia-ereduak, eta zailtasun handiak ditugula gure txikiak errespetuz hezteko, gurasoen lana dela tarteko, edo familia gertu ez da goelako, amatasun eta aitatasunerako lan-baimenak oso motzak direlako, bozkatzan ez dutenentzat egiten diren

politikak desegokiak direlako...

Gurasoei sortzen zaizkien zalantzen inguruan, umezaroaren inguruko jakintza zatikatua dugu parez pare gaur egun. Espezialista asko daude (pediatrak, emaginak, hezitzaileak...), eta gurasoak beren ardura neurri batean profesional horiengan uztera, eta gure umea aurkitzeko jatorrizko gaitasuna ez garatzera eraman gaitu horrek.

Gurasook aita edo ama izateko eta sentitzeko baimenaren beharra dugu; gure seme-alabak ezagutzen joan behar dugu, haurrari behatzen ikasi behar dugu; haren izaera ezagutu, haren gaitasunak; askotan, bizitzaren lehen uneak direla eta, estalian geratzen baitira. Haren garapenaren nolakotasuna ezagutu behar dugu, umearen desirak errespetatu behar ditugu, malgutasuna eta mugen oreka zein den bilatzen ikasi behar dugu...

Budapestera joan ginen batean, aukera izan genuen hango familientzako espazioak ezagutzeko, Zsuzsa Libertiny-ren eskutik. Oso espazio atsegina zen, material interesgarritz betetakoa. Han grabatutako bideoen bat ere ikusi genuen, non haurrak be-

ren kabuz jolasten ziren eta familiak gelako ertzetan zeuden. Hezitzaile bat amengana gerturatzan zen, haurrek egiten zutenaz beste ikuspuntu bat emateko. Oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta, bide batez, amei sortzen zaizkien ezinegon handien lasaigarria ere bai.

Gogoetatik errealitatera

Denborak aurrera egin zuen, eta lo geratu zen buruan bueltaka izan nuen ideia hura. Iazko udaberrian, gure eskolan, Kattukan, familientzako espazio bat sortzeko proiektua proposatu zidan Joselu Macarrok.

Ama eta aita izateko prozesu horretan, uste genuen Kattukak eskaintzen dituen aukerek modu positiboan lagundu zezaketela, eta zailtasunen aurrean familiei lagun egiteko aukera genuela; haien seme-alaben gaitasunak ulertu ahal izateko tresna egokiak eskainiz, eta amatasuna eta aitatasuna modu autonomo, arduratsu eta positiboan garatzeko baliabideak bideratuz. Espazio horretan, profesionalek lagun egin zieziaieketen familiei hurrei denbora, espazioa,



maitasuna eta laguntza eskaintzeko eta, horrela, haurrek beren kabuz eta modu autonomoan mundua aurkitzeko.

Dokumentaziorako denbora antolatu genuen. Hainbat artikulu irakurri genituen; askotariko bideoak ikusi genituen, Francois Dolto-ren “Maison Vert”, Magda Gerber-en “RIE©” (Resources for Infant Educators), Pikler Loczyko familientzako espazioak... Oso esperientzia aberasgarriak ezagutzeko aukera izan nuela uste dut. Informazio horrekin guztiarekin, nire buruan zeuden ideiak testu bihurtu nituen, eta lankideekin partekatu nituen. Haien ekarpenak jaso, eta Kattukako Familia Espazioen txostena garatu nuen.

Txosten horretan, helburuak finkatu genituen jarduera horrekin lotuta.

-Profesionalen eta gurasoen gidari haurrak izatea, partekatutako ezagutzak haurren garapen harmonikoan mesedegarriak izan daitezten.

-Gurasoentzako espazio bat bideratu ahal izatea, haurren gaitasun libretik abiatuta, behatzeko, ulertzeko eta hausnartzeko aukera izan dezaten. Haurrek, beren ekintza espontaneoaren bidez, interesa eta plazera aurkitzea, eta beren burua eta ingurua ezagutzeko aukera izatea.

-Haurrak bakarrik egoteko duen gaitasuna aztertzea, eta familiak horretaz sensibilizatzea. Beharrak (fisikoak eta emozionalak) aseta izateak duen garrantziaz jabetzea, gaitasun hori

gauza dadin.

-Umearen jarreran nola eta noiz esku hartu eta noiz ez jakitea.

-Espazio eta denbora espezifiko bat ezartzeko aukera izatea, non gurasoen eta haurren erritmo eta beharrak errespetatuko diren.

Baina hainbat galdera sortu ziren proiektu honen inguruan. Ideia hauek gurasoekin parteka ditzakegu? Zein gurasok uler dezakete eta lor dezakete etekina hortik?

Gure ustez, denek. Guraso guztiek dute interesa beren seme-alaben gaitasunak garatzeko. Kattukaren bost urteko bizialdi honetan, argi ikusi ahal izan dugu hori. Behaketarako eta hausnarketarako espazio bat zen, gurasoei lagun egiteko eta haurrek jolas egin eta esperimintatzeko. Uste genuen pizgarri izan zitekeela amatasun eta aitatasun ulergarri baten eta haurren garapen autonomoago eta aktiboago baten eraikuntzan.

Azken finean, konfiantza sendotu behar dugu gurasoen erabakietan eta haien behaketetan, pertsona-baliabideak eskuratuz seme-alaben garapena ulertu ahal izateko (zein den beren semearen edo alabaren irudia, eta nolakoa izango den). Txikiengan konfiantza izatea eta zain egoten jakitea da kontua. Ez genituen gurasoak zerbaitez konbentzitu nahi; aitzitik, haurrekiko arreta nola hobetu jakiteko eta seme-alabei lagun egiteko baliabideak eskaini nahi genizkien.

Noiz eta nola?

Gurea haur-eskola publikoa zenez, baimena eskatu nuen Arbizuko eta Lakuntzako Udaletan eraikina eskola-ordutegitik kanpo erabiltzeko, eta proiektuaren berri ematen zuen txosten bat eraman nien. Ez zen inolako arazorik sortu, eta proiektu interesgarria zela adierazi zidaten hainbat udal-ordezkarik.

Hasieratik, familiei esan zitzaizen proiektu hau esperientzia *pilotu* bat zela, eta gure hausnarketarako erabiliko genuela han gertatutakoa, grabatutakoa eta hitz egindakoa. Geroa balioetsiko genuela haur-eskolan ezartzeko aukera.

Gurasoei esku-orri bat helarazi zitzaizen, gure ustez aurretik jakin beharreko hainbat ideia biltzen zituena.

Magda Gerberrek bere espazioetan erabiltzen zituen zazpi printzipio partekatu genituen haiekin.

-Arreta guztia jarri haurrak egin duenari. Arreta hori sumatu egiten dute hurrek, eta beren ekintzak helduarentzat garrantzitsuak direla sentitzen dute.

-Haurrentzako inguru egokia sortu. Fisikoki segurua, kognitiboki erronkak eskainiko dizkiona eta emozionalki aberasgarria izango dena.

-Denbora eman etengabe jolasteko.

-Beste hurrekiko harremanak esploratzeko eta harremanak izateko askatasuna eskaini.

-Zaintzarekin zerikusia duten ekintza guztietan parte-hartzaile aktibo bihurtu, hartzaile pasibo izateari uzteko.

-Haurren erantzunei adi egon, haien beharrak ulertu ahal izateko.

-Hurrek ulertuko dituzten muga argiak ezarri.

Lehenengo bileran, gurasoei informazioa eman genien Emmi Pikler eta Magda Gerberren pedagogia-printzipioen inguruan. Jolas eta ekintza liberako espazio bat sortu zen, eta espazio horren antolaketa umearen

garapenari, nahiei eta interesei egokitu zitzaien; toki horretan, helduak (taldeko hezitzaileak) ez zuen parte hartuko, beharrezkoa ez bazen. Baze- goen espazio bat gorputz-zaintzarako ere, non gurasoek fardela aldatze-ko aukera zuten. Familiei galdetu zitzaien jarduera honekiko zer-nolako espektatibak zituzten.

Onartu beharra daukat banuela nik halako ezinegon bat nire jardueraren inguruan. Ez nengoen oso ziur eginen nuenaz; izan ere, horrelako esperientzia bat garatzen nuen lehen aldian nuen. Alde batetik, lasai nengoen, familiarekin espazioak partekatzea ez baita bortitza niretzat; gure haur-eskolan, gurasoak eskola osoan zehar ibiltzeko aukera dute; geletan sar daitezke, edo jangelan, eta kafetxo bat prestatu... Askotariko ekintzak antolatzen dira: hitzaldiak, auzolanak, festak... Harrera garaian ere, gurekin eta hurrekin batera, espazio bera partekatzen dute; baina, une horretan, beste egoera batzuei egin behar diegu aurre: familiak txikitxoak eskolan uzteko dituen zailtasunei, eta abarri.

Harreran, helburua bestelakoa da;

haurrak eskolan geratu behar du, eta alde egingo du haren familiak. Hezitzaile garen neurrian, hasiak gara ordurako haurrarekin harreman afektibo bat eraikitzen, eta, gurasoen faltan, gu izango gara haien erreferentzia. Baina desberdina da kontua gurasoen espazioetan. Azalatu zitzaidan lehenengo zailtasuna harremanena zen. Nola eraiki harreman bat haurrarekin, haren gurasoak han bazeuden, astean ordubetez, espazioa ezagutzen ez zuten hurrekin...? Lehen saioan desagertu ziren nire kezkek. Berriro ere, hurrek eman zidaten erantzuna. Gurasoak gelaren ertzetan zeuden eserita, lasai, hurrei begira, eta nik lagun egiten nien hurrei jolas-espazioan. Txikiak izan arren, segituan ohartu ziren ni nintzela haien bidelaguna, eta, edozer gauza behar bazuten, gurasoei edo niri eska ziezaguketela; keinu bat, begirada bat... Oso lasaigarria izan zen niretzat. Eta aberasgarria, gurasoek seme-alabek egiten zutenaren zergatia galdetzen zidatenean, edo eta haien hausnarketak nirekin partekatzen zituztenean. Oso esperientzia gomendagarria.



Familien testigantzak

Proiektu honetan, eskolatu gabeko zortzi familiak hartu zuten parte, 3 hilabetetik 15 hilabetera bitarteko haurrekin; eta oraindik jaio gabeko ume baten aitak ere parte hartu zuen. Asko idatzi da familia-espazioen inguruan, lagun egiteaz, etab. Baina ez nuke parte hartu zuten familia batzuen esperientzia azaltzeko aukera hau galdu nahi. Horretarako, ekimenerako erabili genuen espaziora itzuli naiz haietako batzuekin, eta bi galdera egin dizkiet.

Zer esan nahi duzue familia-espazioen dinamikaren inguruan?

“Beste ikuspuntu bat daukat haurren garapenaz; haurren gaitasunean sinesten dut; baina, egunerokoan, betiko ama horietako bat sentitzen nintzen. Alde handia sumatzen nuen sinesten nuenaren eta egiten nuenaren artean; beldurrak nituen, eta laguntza falta. Nik uste dut espazio hauek aukera bat ematen digutela haurrari begiratzeko eta hainbat kezka lantzeko; zenbait egoeraren aurrean nire jarrerak nolakoak izan behar duen ikusteko.”

“Beste modu batera bilakatzen hasten zara, eta beste planteamendu bat egiten duzu. Ume bat izaten duzu, eta inork ez dizu esaten nola egin behar duzun, eta horrek inguruko eraginaren menpe jartzen zaitu. Oso galduta ikusten duzu zure burua. Horregatik dira garrantzitsuak horrelako guneak, hitz egiteko, partekatze, honetaz guztiaz aritzeko; eta profesionalen aholkua duzula eta zuk sinesten duzuna leku horretan islatzen dela ikusten duzu. Egoera emozionala indartzera eraman nau horrek”.

“Beste gauza bat nahi duzula jabetzea pauso garrantzitsua da. Eskolatu gabeko haurrak ditugun familiek jasotzen dugun mezua tradizioz inposatutakoa da, eta espazio honek beste eredu batzuk egon badaudela erakutsi dit”.

“Niretzat, haurrari behatzea, hau da, eseri eta haurrari behatzen hastea, ikaragarria izan zen, eta espazio horretan eman zitzaizkigun azalpenak ere halaxe izan ziren. Nahitaezkoa izan behar luke gure haurrei behatzeko tarte bat hartzeak”.

“Espazio honetan sortutakoak nire jarreraz hausnartzeko balio izan dit; nire esku-hartzea neurtu behar izan dut, eta hainbat zalantza argitu ditut. Segurtasuna eman dit, eta egoera beste lasaitasun batekin hartzen erakutsi dit”.

“Bizitzan izandako esperientziak baldintzatzen du helduaren esku-hartzea, eta ondo ulertu behar dugu haurrek ez dutela bizipen hori, eta denbora behar dutela egoeren aurrean erantzun bat emateko”.

“Han bildu ginen gurasoen artean energia edo konexio bat zegoela sentitzen nuen”.

“Espazioan erabiltzen den materiala ez da edonolako. Hasieran, kuriosoa iruditu zitzaidan umeekin erabiltzen diren ohiko materialak ez ikustea. Gehiena egurrezkoa zen, eta sinplea, itxuraz. Gerora jakin nuen horren guztiorren zergatia, eta etxean ere haurrari objektu berriak eskaintzera eraman ninduen horrek”.

“Nire gurasoei hainbat jarraibide eman nizkien haurren inguruan, hau da, esan nien haiekin zeudenean ez nuela eserazterik nahi haiek beren kabuz ikasi arte, eta, ildo honetan,

beste hainbat erabaki hartu genituen. Izugarri harritu nintzen amak esan zidanean: “Zelan uste duzu egin genuela zuekin ba?”

Horrelako dinamika bat zerbitzuen artean eskaini beharko litzatekeela uste duzue?

“Sistematizatuta egongo balitz eredu hau, ez zen existituko, eta beldurra ematen dit horrek. Kattukako filosofiarekin sistematizatuko balira, bai; bestela, zer erakutsiko ziguten?”

“Horrelako ekimenak haurdun egon aurretik ere eskaini beharko lirateke”.

“Ohartzen bazara, guraso guztiok antzeko galderak ditugu gure haurren inguruan, eta erantzun-gabezia ere bertsua da. Horrelako leku bat egokia da erantzunak eraikitzen joateko”.

“Jendartean umeak txiki-txikitatik igeriketara eramaten ditugun bezala, familia-espaziora eramateko aukera ere izan beharko genuke”.

Jendartearen ispilu da familia. Haurrekin begirunea eta errespetua duen jendartea nahi badugu, pausoak ematen hasi beharko genuke.





Maddalena TESOSCHI
Reggio Emiliako pedagogia animatzailea



Rosa BONANNO
Reggio Emiliako irakaslea

Italiako REGGIO EMILIAko "Loris Malaguzzi" eskola (3-11 urte) ezagutzeko jardunaldia

Hik Hasi antolatuta, jardunaldia egingo da **URRI**Aren 15ean, **BILBO**ko EHUren Bizkaia aretoan.

Italiako Reggio Emiliako Udal Haur Eskolek 50 urteko ibibidea egin eta gero, duela 7 urte, Lehen Hezkuntzako proiektua garatzen hasi ziren. Jardunaldian, **Haur eta Lehen Hezkuntzako** ezaugarriak eta garapena ezagutzea da helburua.

Jardunaldiaren edukia:

- Haur Hezkuntzako filosofia Lehen Hezkuntzara nola eraman den ezagutu.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako berezitasunak azaldu.
- Eskubide bereziak dituzten haurrekin nola jokatu.
- Eguneroko bizipenak.

Loris Malaguzzi eskola ezagutuko dugu, 3-11 urte bitarteko haurrekin garatutakoa da. Hau da, **Haur Hezkuntzako** bigarren zikloa (3-6) eta **Lehen Hezkuntza** osoa (6-11) .



Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus

EKARPENAK 2

'IPURTARGIEN DISTIRA. HEZKUNTZAZ HAUSNARTZEKO IPUINAK' liburua eta bloga

Ipurtargiak eta istorioak

*Iristen naizen neurrian
haziko naiz,
ikertzen dudan neurrian
iritsiko naiz,
ikusten dudan sakonean
ikus dezaket,
amets egiten dudan neurrikoa
izango naiz.*
Karen Ravin

Lagun batek berriki kontatu dit gero eta ipurtargi gutxiago dagoela. Antza denez, ipurtargien kopurua murriztuz doa, eta gure herri eta hirietako argi-kutsadurari egozten diote errua. Ez nuen ikusten hasieran inolako loturarik bi ekintzen artean, nire lagun Pablok dena argitu zidan arte. Haren hitzetan, emeek sabelaren behealdeko argitxo bat pizten dute, arrak erakartzeko asmoz. Orain, aldiz, argiek itsututa, lanak izaten dituzte arrek emeak topatzeko.

Iruzkinak egonezina sorrarazi zidan, ipurtargiak liluragarriak bezain magikoak iruditu baitzaizkit betidanik. Ipurtargiez mintzatzean, udako gau beroak datozkit gogora ezinbestez.

**Joseba
Martinez,
Noemi
Pastor eta
Begoña
Salcedo**

Ingurugela
CEIDA-ko
kideak

Geroago, kontua buruan nerabilela, ohartu nintzen gizakiok arazo bertsua dugula. Estimulu ugari ditugu, garrantzitsua den horretatik, fokuen azpian ez dagoen horretatik, alden-tzen gaituztenak eta orientazioa eta patxada ere galarazten dizkigutenak. Hain da erraza arreta galtzea!

Daniel Simonek, Illinoiseko Unibertsitateko Ikusmen Kognitiboko Laborategiko zuzendariak, esperimendu bakun bezain harrigarria egin zuen. Ikasle-talde bati bideo-grabazio labur bat ipini zion, non bi saskibaloitalde elkarri baloia pasatzen zioten. Ikasleei esan zitzairen zenbatzeko talde bateko jokalariek zenbat aldiz ematen zioten elkarri baloia. Partida labur hura jokatzeko ari zen bitartean, gorilaz moztururik zegoen norbait agertzen zen bat-batean albo batean. Pantailaren erdira ateratzen zen taldeen artean, eta bularrean hiru kolpe ematen zituen. Gero, alde egiten zuen beste izkina batetik. Bideo-emanaldia amaitu ondoren, ikusleei galdetu zieten ea ikusi zuten ezer harrigarririk bideoan. Erdiek, gutxi gorabehera, adierazi zuten ezetz. Esperimentua hainbatetan egin da, eta oso antzekoak izan dira emaitzak. Sinesgaitza iruditu arren, hala da. Paseak kon-tatzen aritzen garelarik, ez gaude arretaz, eta ez dugu ikusten gorila hor



dagoela ere.

Hala eta guztiz ere, ipurtargiek, kosta ahala kosta, topatzen dute bilatu nahi duten argitxoak. Gure kulturaren, kontakizunak argi iradokitzaile izan dira mendeetan barrena. Egun ere halaxe izaten jarraitzen dute, pentsamendu kontzientetik haragoko zerbitzu ematen digutelako: mezu bat, mezu jakintsua, hain justu ere.

José Saramagok, Nobel saria jasotzeko ekitaldian, inoizko gizonik azkarrenaren aipamena egin zuen: hots, bere aitona Jeronimorena. Aitonak ez zekien ez irakurtzen, ez eta idazten ere. Harrigarriro, ordea, istorioak kontatzeko trebetasun aparta zuen artzain hark. Idazle sonatuak zioen guztiok maite ditugula kontakizun ederrak, hitzez ezin adieraz daitekeena ulertzen laguntzen baitigute. Hizkera erraza darabilte adimenaren mugak gailentzeko, logikatik urrun zirrarak sorrarazteko eta gure baitara hurbiltzeko. Ez da, hortaz, harrigarria hezkuntzan berebiziko garrantzia eduki izana. Eta, gaur ere izatea. Duela gutxi Omar Rinconi eginiko elkarrizketa batean¹, irakasle eta telebista-kritikariak adierazten zuen betikora itzuli behar zutela maisu-maistrek gizartearen baliagarriak izateko; alegia, patxadara eta geldotasunera. Horiek horrela, gai izan behar dute istorio onak kontatzeko, gogoeta

eragiteko eta irizpideak emateko. Tamalez, inor ez da horretan ari; hots, inork ez du mundua gelditu. Zalantzarik gabe, ahoz istorio onak kontatzeko gai den irakasleak teknologia guztiak menderatzen dituenak baino gehiago limurtuko ditu ikasleak.

Gizakia bezain zaharra da istorioak kontatzea. Ipuinak, mitoak, alegiak edota kondairak denboran eta espazioan kultura askotan eraldatuz eta moldatuz doaz etengabe.

Ameriketako ipar-mendebaldeko zenbait herritan², bazen antzinako ohitura bat: buztinlari zahar batek erretiroa hartzen zuenean, piezarik bikainena ondorengo gazteenari ematen zion opari. Hark eginiko lana, ordea, ez zen erakusgai bat, jendeak mirets zezan. Halaber, ez zen gordean uzten maisua gogorarazteko, ez eta haren talentua omentzeko ere. Txundigarria bazen ere, lanaren jasotzaileak mila puskatan apurtzen zuen; gero, bere buztinean eta lanetan sartuko zituen puska horiek.

Buztinarekin legez, istorioak bata bestearekin oratzen dira etengabe, gure esperientziei esker. Hala, inspirazio-iturri dira, eta gure bizitza blaitzen du haiei darien jakinduriak.

Egia esan, buztin askotarikoak ditugunez, irakurketa, esanahi eta ikaskuntza anitz atera ohi dugu. Historioen handitasuna lagunei hainbat

kontu iradokitzean datza, hain justu ere. Horrexegatik, beti egongo dira askotariko interpretazio eta irakaspenak.

Behinola, kexuka zebilzion ikasle bat maisuari:

—Beti kontatzen dizkiguzu istorio asko, baina ez diguzu esaten zer esan nahi duten.

Maisuak hauxe ihardetsi zion:

—Nahiko zenuke norbaitek zuri fruta eskaini baino lehen mastekatzea³?

Alta, fruta norberak mastekatu behar du, eta gero ahogozatu

*Ipurtargiak ditut amets,
argi biziaren printzak,
ilunean dir-dir.
Rabindranath Tagore*

Ipuin eta hausnarketa gehiago:

Martinez Huerta, J. (2016). *Ipurtargiaren distira. Hezkuntzaz hausnartzeko ipuinak*, Madril, Bubok. <http://ipurtargiarendistira.blogspot.com.es/>

¹ Rafael Mirallosek Omar Rinconi eginiko elkarrizketa: Cuadernos de Pedagogía, 406. zk., 2010eko azaroa.

² Eduardo Galeanok aipatua: Las palabras andantes.

³ De Mello, A. (1987). El canto del pájaro, Santander, Sal Terrae.

GALDEIDAZU

NOLA KUDEATU TRANSEXUALITATE EGOERAN DAUDEN HAURREN KASUAK?

Haur batek, gure eskolan, eguzkia zergatik goizean leku batean eta ondoren beste batean dagoen galdetuko baligu, onartezina irudituko litzaiguke irakasleak eguzkiak Lurraren inguruan bueltak ematen dituela erantzutea. Gure zentzumenen behaketak eguzkia mugitzen dela pentsarazi ahal badigu ere, aspalditik nahikoa ezagutza dugu mugitzen dena Lurra dela jakiteko, bere errotazio mugimenduan. Eta eguzkiak zerua zeharkatzen duela esatea oso poetikoa bada ere, argi daukagu gure haurrei gure eskoletan ezagutza zuzena transmititzearan garrantzia. Astronomiaz ari garenean edo beste edozein gaitan.

Eskoletan, orain arte ondoko ekuazioa erakutsi izan zaie haurrei: “mutila=zakila eta neska=bulba”, besteak beste, txiki-txikiak direnetik anatomia erakusteko siluetadun fitxekin. “Zergatik daukat zakila?” haurraren galderari, “mutila zarelako” erantzuten dio haur-eskolako irakasleak. “Zergatik zara neska?” galdetzen dio irakasleak orain dela oso gutxi hitz egiten ikasi duen haurtxoari, haurrak “bulba dudalako” erantzunaz, sexuen anatomiei buruzko ezagutzaren lorpena frogatzeko. Baina erantzun hauek eta haiekin haurrei transmititzen diegun ezagutza okerra da. Eguzkia Lurraren inguruan mugitzen dela esatea bezala.

Gai honetan ere gure zentzumenen behaketak okerrera eramanez ahal gaitu.



AINGERU MAYOR¹
CHRYSALLIS-EKO²
LEHENDAKARIA ETA
SEXOLOGOA



Mutil gehienek zakila dute eta neska gehienek bulba dute. Bai. Kasu gehienetan horrela izateak, beti horrela dela pentsatzera eramanez gaitu. Eta ez soilik pentsatzera beti horrela dela, baizik eta *horregatik* dela: genitalengatik garena neska edo mutil. Eta hau okerra da, noski.

Arrazoimena erabiltzen badugu, ez da zaila ulertzea sexu-identitatea ez dagoela hankartean. Identitatea, norbera zer den, autokontzientzia kontua da, subjektibitate kontua. Eta hori, prozesu mental bat izanik, nonbait egotekotan burmuinean legoke. Mutil batek istripu batean zakila galduko balu adibidez, hortik aurrera zakila ez izan arren, mutil izaten jarraituko luke, ezta?

Mutil gehienek zakila dute eta neska gehienek bulba dute. Bai. Baina beti ez da horrela. Badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak ere. Gutxiengoa dira, bai. Baina egon badaude. Oraindik batere zehatzak ez diren hainbat ikerketen arabera 1.000tik 1 izango lirateke.

Orain oso gutxi arte errealitate hau pentsaezina zen. Gaur egun badugu nahiko ezagutza errealitate hau pentsatzeko eta ulertzeko. Baita haur eta gazte hauen bizitzetan oztopoak jarri beharrean, haien bidelagun izateko ere.

Eskolak, beste edozein gairekin bezala, ezin ditu ezagutza okerrak transmititu. Dagoeneko irakasleek ezin dute “mutilek zakila dute eta

neskek bulba dute” esaten jarraitu. Eta ez soilik baieztapen horiek ezagutzaren aldetik okerrak direlako. Arrazoi larriago bat badago. Baieztapen horiek zakila duten neskek eta bulba duten mutilak sufritzera kondenatzen dituzte. Ezin izatera. Ezin bizitzera.

Bere haurtzaroan identitatea onartua izan ez zuten heldu transexualen suizidio saiakera tasa ikaragarria da: % 41ekoa. Ikaragarria. Bestalde azken urteetako hainbat ikerketek datu itxaropentsuak erakusten dizkigute: haien identitatea onartzen denean, haur eta gazte hauen bizitza-kalitatearen adierazleak bere adineko beste haur eta gazteen mailara parekatzen dira. Ondorioa argia da: sufrimendua ez du bere berezitasunak sortzen, bere berezitasunaren ukapenak baizik.

Gure eskolak, haur eta gazte gutzientzat hazteko gunea izan nahi badu, errealitate hau jaso behar du, eta haur hauei diren bezala garatu ahal izateko bidea eman behar die, diren bezala hazi daitezen.

Chrysallis Euskal Herria Elkarte 2015eko martxoan sortu genuen, 8 familiarren artean. Gaur egun 30 familia baino gehiago gara. Familia berrien prozesuak oso gertutik bizi eta lagundu ditugu: familien arteko harremanak sortzen, arreta sexologikoa ematen, informazioa eta formazioa egiten...

Eta, besteak beste, oso argi ikusi dugu, zein garrantzitsua den eskolaren eremuan laguntza egoki bat ematea. Horregatik, haur horien eskoletan hainbat esku-hartze egin ditugu, bai irakasleen klaustroetan, baita gurasoekin ere. Elkartetik egin dugun lan hau asko eskertu izan digute.

Gure apustua, hala ere, haur hauek dauden ikastetxeetan Formazio Plan Integrala instituzioetatik bermatzea da: alde batetik, irakasle eta bestelako langileekin; bestetik, ikastetxeko gurasoekin; eta, azkenik, ikasgeletan ikasleekin. Gai honetan ezagutza espezifikoa duten sexologiako profesionalek egin dute plana, hezkuntza arduradunekin eta haurren familiarekin guztiz koordinatuta. Nafarroako Gobernu dagoeneko Plan Integral horren prestakuntzan ari da. Eusko Jaurlaritzak orain arte, Berdindu Eskolak zerbitzuaren bidez, irakasleei soilik eman izan die formakuntza, eta

lehenbailehen gai honetan komunitate osoa modu koordinatuan heztearen garrantziaz eta premiaz jabetzea, eta Plan Integrala martxan jartzea espero dugu.

Geure elkartetik orain arte ikastetxeetan egindako formakuntza-saio horietan nagusiki transexualitatea ulertzeko oinarritzko informazioa eman dugu, argi ikusi dugulako errealitate honen ukapenaren gako ezagutza eza dela. Eta saio horietako funtsa, haur hauen errealitatea deskribatzen duen esaldi sinple batean datza: “Badaude zakila duten neskek eta bulba duten mutilak”.

Baieztapen xume horrek, ordea, orain arteko egitura mental asko leherrarazten ditu. Eta baieztapen hori ulertzen laguntzeko gaur egun daukagun ezagutza gutzia mahai gainean jartzen dugu: batetik kontzeptualizazio sexologikoa, bestetik zientziaren arlo desberdinetako ikerketa berriek ematen diguten informazio eta, batez ere, gure haurrek (30 Euskal Herrian, 300 baino gehiago estatuan) adierazten diguten errealitatea. Egunerokotasunean haien existentziarekin erakusten diguten guztia.

Haurtzaroan transexualitatea ulertzeko gehiago jakin nahi duenak, Interneten eskuragarri dauka Gorlizen gurasoekin egin genuen fromakuntza-saioaren grabazioa, sare birtualen bidez informazioa zabaltzeko oso baliagarria izaten ari dena (<https://youtu.be/bN2Zl-3hiNXg>).

Formakuntza saio horietan irakasleen jarrera oso positiboa izan da. Behin eta berriz aitortu digute: “Gai honi buruz ez dakigu ezer. Eta jakin nahi dugu, haur hauen bidelagun izan ahal izateko, haur hauek ere zoriontsuak izatea posible egiteko”. Eta oinarritzko ezagutza jaso ondoren, hauxe esan digute askotan: “Uste genuena baino sinpleagoa da!”. Eta gero: “Bale, baina orain, zer egingo dugu gure oinarritzko anatomiazko fitxekin? Bota beharko ditugu, ezta? Baina orduan zer erabiliko dugu?”.

Gure erantzuna: “Egokitu itzazue material horiek... Edo agian hobe, asmatu eta sortu itzazue zuek, ba, material didaktiko berriak! Elkarlanean ere sortu ahal ditugu, ezta?”.

Eskolak, beste edozein gairekin bezala, ezin ditu ezagutza okerrak transmititu. Dagoeneko irakasleek ezin dute “mutilek zakila dute eta neskek bulba dute” esaten jarraitu. Eta ez soilik baieztapen horiek ezagutzaren aldetik okerrak direlako. Arrazoi larriago bat badago. Baieztapen horiek zakila duten neskek eta bulba duten mutilak sufritzera kondenatzen dituzte. Ezin izatera, ezin bizitzera.

Noski, materialez gain, guk kontatzen duguna egokitu beharko dugu. Haurrei aukera emateko errealitate anitzak ulertzeko. Haiekin hausnartuz zer den neska eta mutil egiten gaituena...

Gure elkartetik **ekarpen txiki eta xume bat egin dugu: haurrekin ikasgeletan transexualitatea lantzeko aitzindaria den ikasmateriala (<https://goo.gl/5PMHHW>)**. Aitzindaria ez soilik Euskal Herrian, baita mundu osoan ere. Aurretik ez baitzegoen ezer. Eta euskaraz eta espainieraz argitaratzeaz gain, beste 5 hizkuntzatarata itzuli dugu (galegoa, katalana, ingelesa, alemana eta italiara) eta oraintxe txinerara ere bai. Material didaktiko honek oso harrera ona izan du mundu osoan, sare sozialetan “birala” ere egin delarik. Irakasleen beharrak bultzatuta sortua. Ezagutza zabaltzeko asmoarekin. Euskal Herritik mundura.

Ikasmaterial horretan, hainbat fitxaren bidez, oinarritzko informazioa emateaz gain, indar handiko irudia erakusten da: zakila duen neska baten eta bulba duen mutil baten marrazkia. Eta honen indarra itzela da. Pentsaezina zena pentsagarri egiten duelako. Ikusezina zena ikusgarri egiten delako. Honez gain, bulba duten mutilek eta zakila duten neskek, ziur aski lehenengo aldiz, beren burua nonbait islatua ikus dezakete. Guk geuk ikusi

ahal izan ditugu gure haurren begiak eta aurpegiak nola poztu zaizkien irudi hauek ikustean, nola bere bihotzen taupadak azkartu diren. Haientzat irudi horien indarra neurrigabea da.

Horrelako material gehiagoren beharraz jabetuta, laster ikus-entzunezko material didaktikoa ere argitaratuko dugu. Eta geure neuronak astintzen jarraituko dugu beharrezkoak diren material berriak asmatzeko.

Ederra da **berriki *Irria* aldizkariak argitaratutako komikia ere (<https://goo.gl/DZ19sf>)**, non protagonista, zakila duen neska bat, biluzik agertzen den. Guk dakigunez, mundu osoan komiki aitzindaria da hau ere.

Ikastetxeetan egin ditugun formakuntza-saioetan transexualitate egoeran dauden haur eta gazteen errealitateari aurre egiteko estrategiak ere partekatu ditugu. Eta irakasleen artean galdera eta zalantza asko sortu dira. “Zer egin komunekin?”, “eta aldageletan zer?”, eta...

Galdera eta zalantza gehienak adierazi duten iluntasuna oso *palanka* simple batekin, ideia simple batekin, argitu ahal izan dugu: **zakila duten neskak, neskak dira; eta bulba duten mutilak, mutilak dira. Horren erraz!**

Zalantzak argitzen dira argi baldin badaukagu identitatea ez dagoela hankartean, identitatea norberak adierazten duena dela. Norbera neska dela, berak neska dela dakielako; norbait mutila dela, hala adierazten digulako.

Gure ikastetxeetan komunak sexuen arabera bereiztuak baditugu... zein komunitara joango dira ilegorria duten neskak? Eta larru beltza duten neskak? Eta ezkerak diren neskak? Eta zakila duten neskak? Erantzuna ez da zaila, ezta? Agian honek guztiak, komunen antolaketa bidez inposatzen dugun neska eta mutilen arteko bereizketaren zergatia (zergatik!?) hausnartzera eramango gaitu. Baina hori beste kontu bat da, beste *borroka* garrantzitsu eta emankor bat. Hori bai, nahitaezkoa da hemen azaltzen ari garen gaiarekin ez nahastea. Zakila duten neskek eta bulba duten mutilek, beren identitatea ukatua izan delako edo, bere sexuko ezaugarriak azpimarratzeko beharra izaten dute eta

beraiek, kasu gehienetan, komunak bereiztea nahi izaten dute. Beraien desioa, guztientzat beraiek bere sexuko komunitetan sartzen direla argi gelditzea izaten da. Beste edozein neska edo mutil bezala. Beste mutil eta neska guztiak bezala.

Ikastetxean nesken aldagelak eta mutilen aldagelak bereiztuak baldin badaude... zein aldagelatan sartuko dira balletean aritzen diren mutilak? Eta betaurrekoak dituzten mutilak? Eta bulba duten mutilak? Garrantzitsua izango da, noski, aldageletan inoiz ez inori derrigortzea besteen aurrean biluztea. Aldageletako biluztasunak gorputzaren bizipen positiboan lagunduko duelako soilik biluztasun hori inposatua ez denean. Eta zakila duten nesken eta bulba duten mutilen kasuan, aldageletako egoera hau kontu eta goxotasun handiz lagundu beharko dugu, beraientzat egoera hori erraza ez izatea gerta daitekeelako.

Ikastetxean gabonak iristean base-ritar jantziak aukeratzean, nortzuk jarriko dute buruan zapia eta nortzuk txapela? Nortzuk gonak eta nortzuk prakak? Hemen ere inposaketak azaltzen dira... Hain zaila egiten al zaigu uztea haur bakoitzak nahi duen moztorra aukeratzea? Edo jantzi nahi duen arropa aukeratzea?

Honek beste errealitate batetara eramaten gaitu. Badaude zakila duten mutikoak ere panpinak gustuko dituztenak, azkazalak margotzea maite dutenak, soinekoak jantzi nahi dituztenak. Zergatik gizarte honetan mutil horiei debekatzen zaie diren bezala izan ahal izatea, zergatik inposatzen zaie nola jantzi behar duten, zertara jolastu behar duten?

Badaude (noski!) bulba duten neskatoak futbolearen aritzea gustuko dutenak, ile motza nahiago dutenak, “guapa” egoteaz paso egiten dutenak, hitz zatarrak erabiltzea gustuko dutenak... Zergatik ez diogu uzten bakoitzari den bezalakoa izaten, hazten...?

Haurren garapenean jolas sinbolikoaren garrantziaz aspaldi ohartu ziren adituak. Haurrek nahi duten jolasean aritzeko eta libre sentitzeko beharra dute: panpinekin, borrokan, printzesatan, medikutan, haurdunarena egiten, animaliak izaten... berdin neska edo mutil izan, berdin zakila

edo bulba izan.

Zergatik tematzen gara inposatzen mutilak maskulinoak eta soilik maskulinoak, eta neskak femeninoak eta soilik femeninoak izan behar dutela?

Zein da eskolaren helburua? Neskak eta mutilak guk nahi dugun bezalakoa izatea? Edo norbera den bezala jabetzen joatea, norberaren ezaugarriak garatzen joatea, norbera bere hegalak ahalik eta gehien zabaltzen joatea? Norbera bere koloreekin, bere berezitasunekin, bere ñabardura eta xehetasunekin... Erronka ederra gaur egungo eskoletan. XXI mendeko erronka. Aniztasunaren aberastasuna eta eskola eraikitzaileko ardatz.

Ikastetxeetan egin ditugun saioetan, irakasleek beste behar bat azaldu dute: beste ikastetxe batzuetan izandako antzeko esperientziak ezagutzea. Eta ideia honekin **transexualitate egoeran dauden haurren ikastetxeen sarea sortu dugu Euskal Herrian: Loratuz Sarea. Sare honen bidez, antzeko errealitatea bizi izan dutenen esperientzia ezagutzea posible egiten ari gara: elkarri galderak egiteko, hausnarketak konpartitzeko, elkarlanean aritzeko...**

Chrysallis Euskal Herria Elkartearen kementsu ari gara lanean. Eta lanean jarraituko dugu. Ez dugulako gure seme-alabek haurtzarora gal dezaten nahi. Ez dugulako suizidioaren itzal iluna haien etorkizunean nahi. Diren bezala onartuak eta errespetatuak izatea nahi dugu. Euren burua sentitzen duten moduan bizi ahal izatea nahi dugu, gainontzekoen moduan jolastea, ikasi, hazi eta garatu ahal izatea. Irribarre egin dezaten. Bizi ahal daitezten. Izan ahal daitezten.

Horretarako, haien bidaide eta laguntzaile izatea erabaki dugu guraso-ok. Eta eskutik behar dugu abentura honetan hezkuntza komunitate osoa.

Eta hau dena irripar handi batekin esaten dugu. Gure haurren bizipozak sortzen digun irriparra. Jakinda, noski, hau guztia oso kontu serioa dela. Gure seme-alaben bizitza baitago jokoan.

¹ Artikulu hau Chrysallis EHko kidea eta irakaslea den Marian Emazabalen laguntzarekin idatzi da.

² Chrysallis Euskal Herria, zakila duten nesken eta bulba duten mutilen familien elkarte da.

ARGITALPENAK



COLLINS ELHUYAR HIZTEGIA

Collins eta Elhuyar

COLLINS-ELHUYAR

Elhuyarrek, Collins argitaletxe britainiarrarekin batera *Collins Elhuyar english-basque dictionary euskara-ingelesa hiztegia* argitaratu du. Euskaldunei ingelesa zubi-hizkuntzarik gabe ikasteko baliabide bat eskaintzea du xede, ikasle euskaldunek gaztelania-ingelesa edo frantsesa-ingelesa hiztegie-tara jotzeko beharrik izan ez dezaten.



HARTZ TXIKIREN LAGUNA

Koord.: Pierre Bertrand / Itzulpena: IKAS

IKAS

Ikasmaterial honen xedea sei eta zortzi urte arteko ikasleei orotariko jardueretan aritzeko bidea zabaltzea da, eta, aldi berean, egiten den ekintzari zentzua ematea. Gorputz jarduera ez ezik, orientazioa, bakarkako nahiz taldekako jokoak, dantza, gimnasia erritmikoa, antzerkia edota antzekoak ere lantzen dira.




AMALUR

Miren Amuriza / Julen Tokero

ELKAR

Larunbat goiza da eta iratzargailuak ohi baino lehenago jo du pailazoen etxean. Ilargiren baserrira joatekoak dira sudur-gorriak; aspaldiko laguna dute. Ilargiren baserrian oso gustura ibiltzen dira, eta asko ikasten dute beti, izan ere ofizio askotako baserritarra da: artisaua, sendagilea, mekanikoa, astronomoa...




HIRU HARTZAK ETA BEGI URDIN

Hordago

EREIN

Ipuin klasikoa da: 3-8 urte bitartean begiratu, irakurri, ulertu eta disfrutatzeko ipuina. Gure gizarte zaharreneko istorioak entzunez edo irakurritz sartuko dira umeak eskolan eta munduan. Gainera, letra xehez eta larriz ageri da testu berbera ezker aldeko orrian eta eskuin aldekoan aldiz marrazkia.



ALDE HORTIK, EULIA!

Émile Jadoul / Itzulpena: Eider Mujika

IBAIZABAL

Besteak ukituz eta ziztatuz munduko gauza harrigarrienak ari da ezagutzen eulia: zer den labainkorra, zer leuna, zer gogorra... Hala ere, aldiero, animalaren bat ziztatzen du. Horrexegatik, beste guztiek gorroto dute eulia. Eskerrak azkenean, igelak jan nahi duenean, denak bere alde agertzen diren!



ESKOLAKO ARBOLA

Antonio Sandoval / Emilio Urberuaga
Itzulpena: Fernando Rey eta Uxue Rey

PAMIELA-KALANDRAKA

Eskolako patioan arbola bat zegoen. Bakarra. Pellok gustuko zuen arbola-ren inguruan lasterka ibiltzea jolas-orduetan. Ondotik pasatzen zenean, adi begiratzen zuen, haren kontra tupust ez egiteko. Behin, Pello gelditu, eta arbolari erreparatu zion. Hurbildu egin zen, eta enborra laztandu...

PROPOSAMENA

‘MUSIKA-TRESNAK’ IKAS-MATERIALA 400 bat instrumentu haurren eskura

Liburu eta CD honen xedea era guztietako musika-tresnak haurrei aurkeztea da: ezagunenak, klasikoak, gaurkoak, ohikoak... Helburu pedagogikoa du, hortaz, instrumentuak 6 urtetik gorako haurren eskura jarri nahi baititu. Gainera, Musika Eskola eta Kontserbatorioen Federazioaren batzorde pedagogikoaren oniritzia duen materiala da. Orotara, munduko eskualde guztietako 400 bat musika-tresnaren marrazkiak eta informazioa biltzen ditu, eta 70 bat instrumenturen grabaketak.

Sarri, musika-tresnak ezagutarazteko, publiko zabalarendako eginak diren liburuak erabili ohi dituzte ikasgeletan, *Musika-Tresna* liburuxkaren aitzin-solasean dioen bezala, “jakinez gehienetan osatugabeak edo eskola-adineko haurrentzat ezegokiak direla”. Horrexegatik, liburu berri bat proposatzea erabaki du Les Éditions Buissonnières argitaletxeak, 6-12



Georges Boulestreau, ikas-materialaren egilea.

urte arteko haurrentzat ulergarria, eskoletan gero eta gehiago erabiltzen diren lan teknikei egokitua, eta zenbait irakaslek haurrentzat egindako abesti sorta batez lagundua. IKAS argitaletxeak eman du euskaraz, jatorrizko argitalpena egokituta eta Euskal Herriko lau musika tresna enblematiko gehituta: txirula, ttuntuna, txalaparta eta alboka.

Musika-tresnak familiara aurkezten ditu liburuak, ordezkarri nagusien inguruan bildurik: klarinetaren

familia, biolinarena, tronpetarena... Marrazkien orrialdeak, berriz, haurrei zuzenduta daude. Ilustrazio sinpleak dira, marra soilez eginak eta fotokopiagarriak. Bi instrumentu mota erakusten dira: batetik, gaur egun ikusi edo entzun daitezkeen musika-tresna gehienak; eta, bestetik, jatorri historiko edo geografiko berezia dutelako aipatzea merezi dutenak.

Fitxak ere baditu liburuak. Horietako batzuetan musika-tresnen funtzionamendua agertzen da. Beste

bi fitxa berezitan, berriz, soinua bera nolakoa den erakusten da, baita instrumentuekin soinu hori nola lor daitekeen ere. Azkenik, musika-tresnen zerrenda bat ere badago, bakoitzaren hedadura zehaztuta dakarrena.

Beste alde batetik, testu orrialdeak ditu liburuak. Horiek irakasleari zuzenduta daude. Haurrek egin ditzaketen galderei erantzuteko beharrezkoak diren azalpenak ematen dira bertan. Egitura beti berbera da: musika-tresnari buruzko informazio orokorra, berorren fabrikazioa, historia, familia, erabilera, entzun daitekeen musika...

CDan, musika 'ederra'


Diskoa esku-liburuarekin batera erabiltzeko da. Pista anitz dauzka, sekuentzietako sarbidea errazagoa izan dadin. Bi zati ditu, eskuliburuaren bi atal nagusiei dagozkienak. Lehen partean musika-tresnak entzuten dira bata bestearen ondotik. Liburuxkak zehazten duen moduan, "hobe da ikasleek entzuten diren musika-tresnak begien aitzinean ukaitea, soinuaren eta irudiaren arteko loturaren egiteko". CDko bigarren partean, berriz, musika-tresnak ezagutzeko ariketak proposatzen ditu, eta horiek eskuliburuko ariketekin dute lotura. Ariketa horiek modu askotara egin

daitezke, baina modurik errazena ondorengoa da: "Haurrei fitxa osoak eman eta grabazioak seriez serie entzunaraztea. Lehenik, aski dute marrazkiaren ezagutzea eta izendatzea, bazterrean proposatu zerrendaren laguntzaz. Gero, musika-tresnak zer ordenatan entzun dituzten adierazi beharko dute".

Grabazioetan musika lehenetsi dute soinuaren aurrean. Haurrei musika "ederra" entzunarazi nahi izan diete are gehiago entzuteko gogoia pizteko. Beraz, musikagileen eta obren izenak liburuan jasota daude. Hain zuzen ere, liburuaren amaieran diskoaren aurkibide osoa ikus daiteke.

Probatutako materiala

Aipatutako dokumentu guztiak lehen mailako eta musika eskoletako irakasleek probatu dituzte. Izan ere, sorburutik saiatu dira haurrentako material erabilerraza proposatzen. Hala dio aitzin-solasaren amaieran: "Agian gogobeteko zaituztete eta, guk bezala, musikariak atsegin handiz entzunen dituzue. Haurren plazeraren alde jo nahi izan dute. Eginen dizkiguzuen ohar guztiak ongi etorriak izango dira eta hitzematzen dizuegu kontuan hartuko ditugula hurrengo argitalpenetan".



MUSIKA-TRESNAK' LIBURUA eta CDa



AUTOREA:

Georges Boulestreau

EGOKITZAPENA:

IKAS

JATORRIZKO IZENBURUA:

Les instruments de musique

GENEROA:

Musika

ADINA:

6 urtetik gora

PREZIOA:

30 €

SALTOKIA:

Elkar dendak

15. Mintz-perkusioak



Orkestrako tinbala. Bi edo lauraka dira beti. Pedaler bati esker, fite tozuan jar daitezke.



Bi danbor mota



Kaza. Pordoi bater hoztuta da (beheko analaren arpien tinkatu hariak, larruaren

ATZEKO ATETIK



GURE GARAIAREN ISLA?

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI EDITOREA

Egia baldin bada toki eta denbora jakin batean egiten den kulturak sortu den garai eta leku horren berri ematen digula, pasa berri den Donostiako Zinemaldian ikusi dugun film sorta kezkatzeko modukoa dela aitortu behar.

Izan ere, Zinemaldi horretako sail ofizialean, nihilismoan eta anomian jausitako nerabeei buruzko pelikula zein baino zein ilunagoak ikusi genituen bata bestearen atzetik, herrialdez eta estetikaz desberdinak baina esperantzarik gabeko etorkizuna marraztean bat zetozenak.

Bertrand Bonello frantziarraren *Nocturama*-k, esaterako, gazteria desideologizatu baten matxinada bat kontatzen zuen: bonba bidezko atentatua egin ondoren, zentro komertzial batean elkartzen dira gazte horiek, eta suntsitu nahi luketen

zibilizazio hori bezain kontsumista, hutsal eta axalekoak direla ikusiko dugu. Estetika interesgarria eta sinesgarritasun politiko eskasa alde batera utzita, erretratu kezka-garria.

Bartosz M. Kowalski poloniarrek, *Plac Zabaw* (Jolastokia) filmean, 12 urteko gaztetxo batzuen nora eza erakusten digu hasteko, baita gazte horien krudelkeria bihozgabe eta arrazoigabea ere gero, baliorik ezari motibazio falta erantsiz, modu etsigarri batean.

Nerabeen istorioa da *As you are* ere, Miles Joris Peyrafitte estatubatuarren lehen filma: Jacken ama eta Marken aita bikote bihurtzen direnean elkarren lagun egingo dira bi mutiko bakarti horiek. Hortik aurrera, grunge belaunaldiaren ondoeza, sexuaren deskubrimenduaren zalantzak, sentimenduen anbiguo-

tasuna eta abar; oro har tristea bada ere, ez da aurrekoa bezain iluna, baina pistolak etxean edukitzen diren etxean, gauza onik ez.

Beltzetan beltzena, Fernando Gutzoni txiletarraren *Jesus*, izen bereko gaztearen eta bere lagun ibilerak kontatzen dituen: diskotekako ordu txoroak, biolentzia zentzugabea, gozotasunik gabeko sexua, ikasketei jaramonik ez, edozer sartuz drogatu beharra...

Txile, AEB, Polonia, Frantzia... eta denetan desosegu sentipen bera. Baldin eta filmok gure garaiaren isla baldin badira, ez da gozoa gaurko gazteei uzten diegun mundua. Dena dela, ez dut uste geroa idatzita dagoenik: guztion esku dago iragarpen beltzei bizkar ematea, eta irakasleek erantzukizun berezia duzue zeregin horretan. Animo, ez da erraza baina!



Burdin Harana Legazpi - Gipuzkoa

www.lenbur.com
ikerketa@lenbur.com
943 73 18 95 // 943 73 04 28

LENBUR
TURISMO



Mirandaolako Burdinola martxan!!

*Talde handientzako prezio bereziak.
Nahi izanez gero, ingelesez egin daiteke bisita, gidari natibo batekin.
Olapintxoak dastatzeko aukera dago.*



Argazkia: Jonu Aizola

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializaziora Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziaz jabetuko gara.



Hiru gune

Burdinolan Bilbidea, XI-XIX menderaino:
Aizkorri-Aratz parke Naturalaren magalean, UR-OLA baina jaotzen da, Burdin Haranaren ardatz nagusia. Bertan olagizonak eta baserritarak bizi izan dira.
- Aizkorri-Aratz Ekimena
- Oparren Txokoa

Mirandaolako Parkean, XIX. menderaino:
Aurre industrializazioen murgituko gara, Mirandaolako Burdinola martxan hasiz. Teknologia, energiak, lantokiak eta besteak beste gaitik lantzen ditugu.
- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

Langileen Bilbidea, Iraultza Industrialak.
Burdinola zaharrek lanegi bihurtuko dira, olagizonak langile, eta baseri asko langileen etxebizitzak. 1950. urtean murgituko gara, Iraultza garaiko hert industrializatu batetan.
- Lantokiak
- 1950eko etxerik eta etxebizitzak.

Egun bateko edo bizpahiru egunetako egonaldiak. Eguraldi txarrarekin "B" pista. Milla gutxiar egokitutako teler eta biutak. Mirandaolako Parkean, merenderoa, frontoia, haize-parkoa, pista jokoa, eta beste daude.



Xabier TAPIA



- Anna LUNA



Alvaro BEÑARAN

ARRETA GOIZTIARRA jardunaldiak

Azaroaren 4an BILBOan eta 5ean DONOSTIAN

Urtero bezala, aurtengo udazkenean ere, Haur Hezkuntzakoentzako jardunaldiak antolatuko ditu *hik hasi*-k. "Arreta goiztiarra" gaia hartuta, hainbat arlo jorratuko dira.

-Xabier TAPIA psikologo klinikoa.

-Anna LUNA Kataluniako psikomotrizista eta prebentzioan aditua.

-Alvaro BEÑARAN pedagogia terapeutikoan lizentziatua eta Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea.

Informazio osoa eta izena emateko aukera, urrian,

www.hikhasi.eus helbidean